

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

AMA-HIZKUNTZAREN BABESA

Gradu Amaierako Lana

IKASLEA: Iglesias Mitxelena, Eider

TUTOREA: Reguero Ugarte, Urtzi

2021-2022

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen bitartez, Haur Hezkuntzako etapan hizkuntza landu eta indartzeko baliagarria izango den proposamen didaktikoa azalduko da. Horretarako, lehenik eta behin, marko teorikoa izango da lanaren oinarria, non Haur Hezkuntzaren garrantzia aztertuko den, hizkuntza zer den eta nola lantzen den azalduko duen eta familia bakoitzaren ama-hizkuntzak haurren hizkuntzaren garapenean duen eragina zein den aztertuko den. Ondoren, helburu orokorra kontuan hartuta, proposamen didaktiko bat azaltzen du lanak, honek dakarren prozesu guztia zehazki argituta. Prozesu honetan zehar, uneoro haurren interes eta beharrak kontuan hartzen dira, haurren garapenean eragina duten alderdiak gertutik begiratzuz eta hizkuntza indartzeko helburu nagusia izanik.

Hitz-gakoak: Haur Hezkuntza, hizkuntza, ama-hizkuntza, hiztegia, garapena, proposamen didaktikoa.

RESUMEN

A través de este Trabajo Fin de Grado se expondrá una propuesta didáctica que servirá para trabajar y fortalecer la lengua en la etapa de Educación Infantil. Para ello, en primer lugar, el trabajo se basará en el marco teórico, en el que se analizará la importancia de la Educación Infantil, se explicará en qué consiste la lengua y cómo se trabaja, y se analizará la influencia de la lengua materna de cada familia en el desarrollo de la lengua infantil. A continuación, y teniendo en cuenta el objetivo general, el trabajo presenta una propuesta didáctica que ilustra con precisión todo el proceso que conlleva. A lo largo de este proceso se tienen en cuenta en todo momento los intereses y necesidades del niño, observando de cerca los aspectos que influyen en su desarrollo y teniendo como objetivo principal el refuerzo lingüístico.

Palabras clave: Educación Infantil, lengua, lengua materna, vocabulario, desarrollo, propuesta didáctica.

AURKIBIDEA

SARRERA	3
JUSTIFIKAZIOA	4
PERTSONALA	4
PROFESIONALA	5
MARKO TEORIKOA	6
HAUR HEZKUNTZAKO ETAPA	6
HIZKUNTZA	10
HIZKUNTZAREN LANKETA	14
AMA HIZKUNTZA ETA BIGARREN HIZKUNTZA (H2)	18
HELBURUAK	21
METODOA	22
GARAPENA	23
TESTUINGURUA	23
AMA-HIZKUNTZAK	24
1 / 2 / 3 HIZKUNTZAK (euskara, gaztelania eta orokorrean, ingelesa)	24
HIZKUNTZA PROIEKTUAK	25
ZAILTASUNEN KUDEAKETA	26
ESKU-HARTZEA	27
ONDORIOAK	34
MUGAK ETA HOBEEKUNTZAK	35
ERREFERENTZIAK	37
ERANSKINAK	38

1. SARRERA

Haur Hezkuntzan garatu beharreko alderdi nagusienetako bat kognitibo-linguistikoa da, non hizkuntzaren garapena eta komunikazioa lantzen den. Horretarako, irakasleok estrategia eta ekintza desberdinak eta haurren adina kontuan hartuta, baliabide desberdinak eskainiko dizkiegu bidean aurrera egin dezaten, bai ahozko komunikazioa, bai idatzizko komunikazioan. Izan ere, Haur Hezkuntzako etapa bi ziklotan banatzen da eta ziklo bakoitzak bere helburu nagusiak izango ditu hizkuntza lantzeko prozesu horretan, ikasleen adina, behar, interesak eta zailtasunak uneoro kontuan hartuz. Horrez gain, ama-hizkuntza izango da ekintza guztien erdigunea, gerora beste hizkuntzetan trebetasuna indartzeko asmoz.

Lan honetan zehar, Haur Hezkuntzaren etaparen garrantzia aztertuko dugu lehenik eta behin, haurren lehenengo urteen garapena. Ondoren, hizkuntza alderdian murgilduko gara, hizkuntzaren oinarri teorikoak zeintzuk diren aztertu eta gerora, hizkuntzaren lanketarako erabil daitezkeen estrategia eta ekintzetan sakondu. Marko teorikoari amaiera emanaz, ama-hizkuntzen garrantzian sartuko gara, ikasle etorkinen egoera aztertuko dugu gehienbat, hain zuzen.

Lanaren atal garrantzitsuena garapena izango da, aurreko teoria guztian oinarrituz hizkuntza lantzeko proposamena aurkeztuko dut. Bertan, eskolaren testuingurua eta egoera azalduko dut; hau da, eskolaren aurrekariak, giro horretan aurki dezakegun kulturantzitasuna, eskola orduetan lantzen diren hizkuntza desberdinak, espezialitateen mundua eta azkenik, proposamena. Horretarako, eskolarekin harremanetan jarri naiz informazio gehiena eskuratzeko asmoz, tutorearen laguntza izateaz gain, bertan praktikak gauzatu baititut. Gainera, familien inplikazioa bermatu nahi dut proposamen honekin, hizkuntza desberdinak ezagutu eta erabilera emateko xedeaz.

2. JUSTIFIKAZIOA

a. PERTSONALA

Haur Hezkuntzako etapa oso garrantzitsua da haurrentzat, etapa honek haien etorkizuna bideratzen baitu. Zailtasunak detektatzeko etapa egokiena da eta haurrek ematen dituzten lehenengo aurrerapausoak bertan egiten dituzte, uneoro eskolaren zein familiaren laguntzarekin. Derrigorrezko etapa ez dela azpimarratu beharra dago, baina haurraren lehenengo urte horiek ezinbestekoak dira alderdi desberdinak lantzeko eta gizartearen mundu berri horretan sartzeko lehenengo urratsa izanik. Hau da, komunitatean egoten eta izaten ikasten du haurrak, gainerako kideekin partekatzen hasten da eta bidean bakarrik ez dagoela ohartzen hasten da.

Nire etorkizun oso gertuko irakasle lan horretan, irakaslearen rola zein eta nolakoa den sakon jakin behar dute, orain arte ikusi eta barneratu dudana aparte, alderdi desberdinetan parte hartzen jakin behar dut, alegia. Hortaz, irakaslearen rola bidelagun izatea datza, haurrak bere lehenengo etapa garrantzitsu honetan lagundu eta bideratu, uneoro ikasle bakoitzaren gaitasun, zailtasun, behar, nahi eta interesak onartuz eta errespetatuz.

Gerora, gaian gehiago sartzearren, inguruan aurki ditzakegun ama-hizkuntza desberdinen egoera eta trataera ez dago lan besterik; etorkizun gertu horretan inguruan izan dezakegun ikasle bakoitzaren egoera kulturala, hain zuzen. Honekin batera, Euskara hizkuntza bertan dagoela jakin badakigu, eskolen funtzioa (Euskal Herrian soilik) hizkuntza horri garrantzia emanaz. Hala ere, ama-hizkuntza guztiak ahazten hasten dira eskolara sartu orduko, ikasle etorkinen ama-hizkuntzak alde batera utziz eta soilik Euskara eta Gaztelania (edota Ingelesa) erdigunea izanik. Horregatik, eskolan egon daitezkeen ama-hizkuntza guztiak kontuan hartu behar dira edozein jarduera ekiteko eta haurraren egoera jakiteko.

Izan ere, Euskara hizkuntzari eskola orduen lekua eman arren, ez da nahikoa izaten ikasleen zein familien artean hizkuntza hori balioesteko. Betiko ekintzak eramaten dira aurrera eskoletan, Euskararen Eguna besteak beste, baina Euskal Herriko bizilagunak izanik, ez dugu arreta nahikorik bideratzen eta pena izaten da, Euskara galtzen hasia baita. Eskolaz gain, familiaren inplikazioa ezinbestekoa da esparru honetan eta guztietan, hizkuntza bakoitzari familiak duen pentsamendua haurrengan islatzen baita eta errespetu hori bermatu beharra dago gizartearen. Baliteke familiek Euskara (edo beste hainbat

ama-hizkuntza) ez jakitea, hala ere, eskolaren zein familia beraren parte hartzea bertan ikus daiteke, tailer edo ekintza desberdinak antolatzea izan daiteke baliabide bat, esaterako.

b. PROFESIONALA

Alderdi profesionalean galdera honi egin beharko genioke aurre: *zergatik da garrantzitsua hizkuntzaren didaktika/hizkuntza eskolan lantzea?* Ondorioz, erantzun bat lortuko genuke. Erantzun asko eta desberdinak lortuko genituzke pertsona bakoitzari galdetuko bagenio, baina nire ikuspuntutik begiraturaz, erantzuna bakarra eta sinplea izango litzateke. Hots, hizkuntza gure egunerokotasunean erabiltzen dugun komunikatzeko era da, izan ere, hizkuntza mota desberdinak aurki ditzakegu, ahozkoa, idatzizkoa, hitzik gabekoa (keinuak erabiliz, alegia), etab. Horrez gain, inguruan beste hainbat hizkuntza entzun edo irakurri ditzakegu, euskara, gaztelania eta ingelesa orokorrenak izanik, baina baita arabiarra, frantseza, alemana eta beste hainbat ere.

Hortaz, gure irakasle lanetan egoera desberdinekin aurkituko garenez eta haurren Haur Hezkuntzako etapan lehenengo pausoak eginez, hizkuntza eta hizkuntza mota desberdinak zeintzuk eta nola erabiltzen diren jakitea ez dago beste lanik, garrantzitsua baita gure egunerokotasunerako, egoera dela ere, bata edo bestea erabiltzeko. Honekin batera, bizi garen gizartearen kide guztiekiko errespetua bermatu dezakegu ezagutza honekin, berriz ere, egoera zein den jakiten dugunean, hizkuntza bat edo beste erabili dezakegulako eta haurrak honen jakinean egonez gero, gerora erosoago sentituko baitira egoera desberdinen aurrean.

Familiak transmititzen duen eredia ezinbestekoa eta garrantzitsua da haurarentzat, argi dago, baina eskolak eskaintzen dizkion baliabideak egunerokotasunean eta etorkizunean erabiltzeko beharrezkoak izango ditu. Familia ereduaren antzera, irakasleak haurarengan duen eragina berbera edo handiagoa baita. Ondorioz, ez dago beste lanik inguruan izan ditzakegun hizkuntza eta hizkuntza mota desberdinen ezagutza lantzea, ikasle bakoitzak bere parte eskainiz eta irakaslearen laguntzarekin ezagutza hori osatzen jarraituz.

3. MARKO TEORIKOA

a. HAUR HEZKUNTZAKO ETAPA

Gure bizitzako lehenengo pausok badute bere garrantzia, une bereziak bermatzen baitira urte horietan, balioetsi behar ditugunak, hain zuzen ere. Pertsona bakoitzaren lehenengo urteak oso garrantzitsuak dira etorkizunean izan nahi dugun bidea bat edo beste izan dadin, eta orokorrean, ez gara horretaz ohartzen (edo ez gara konturatu nahi izaten). Gure bizitzaren lehenengo egoera berriak, gertakizunak, ezagutzak, errore-saiakuntzak, etab. ez ditugu batere kontuan hartzen eta alde batera utzi ohi ditugu. Hitz gutxi batzuetan laburbilduz, gure lehenbiziko aurrerapauso gehienak gutxien ditugu (Ituero eta Casla, 2017). Hortaz, derrigorrezko etapa ez izan arren, Haur Hezkuntzako etapa oso garrantzitsua da eta beharrezko erantzuna eman beharko litzaioke, haurren garapena baldintzatzen baitu (Hik Hasi, 2000).

Haurren garapena Haur Hezkuntzako etaparekin lotzeko asmoz eta etapa honi bere lekua eskainiz, alderdi desberdinak garatzen hasten dira bertan (Bigas, 2008); hala nola, garapen integrala, gaitasun afektiboak, sozialak, kognitiboak eta linguistikoak. Horrez gain, Bigasen hitzetan oinarrituta, ikaskuntza oso garrantzitsuak eta ezinbestekoak gertatzen dira 0-6 urte bitartean, haurrek beharrezko ezagutzak eta gaitasunak garatzen hasten baitira eta etorkizunerako oinarrikoak izango direnak, alegia. Lópezek (2012), neurobiologoak, garunaren garapenik handiena 0-6 urte bitartean ematen dela azpimarratzen du, Haur Hezkuntzaren etapari geroz eta balio handiagoa emanez; urte horietan egon baita plastizitate handiena alderdiak birmoldatzeko eta garatzeko, gerora egonkortu eta aldaketak bermatzeko zailagoa izanik.

Haur baten garunaren garapenaren ildotik, 0-6 urte bitartean, oinarriko tresnen ezagutza eta antolaketa hasten da; ikusmena, entzumena eta motorea, besteak beste (López, 2012). Baliteke aipatu berri ditugun oinarriko tresnen garapenean herrenka hasi edo oztopo batzuekin aurkitzea, baina erantzukizun azkar eta egoki bat ematea ezinbestekoa liteke haurrentzat, eskola-porrota bermatu ez dadin. Hala ere, López neurobiologoak hausnartzen duen bezala, kontuan hartu behar dugu ez daudela bi garun berdin, bat bestearengandik oso desberdinak dira, begi bistan antzeman ez arren. Hau da, pertsona bakoitzaren antolaketa neurologikoa ez da berbera, informazioa hartu, prozesatu eta antolatzeko prozesua desberdinak baitira. Hortaz, garunaren garapena egokia izan dadin, inguruneak eta estimuluak indarra hartzen dute hau bermatzeko; atsedean eta elikadura egokia izatea, espetimentatzea, ingurune emozional egokia izatea, hala nola.

Izan ere, tresna eta baliabide desberdinak eskura jarri behar dizkiegu haurrei (helduen eredua bermatuz), hauen arrakasta edo porrota jokoan jartzen baitugu (López, 2012). Haur guztien arrakasta lortzea izango da irakaslearen helburu orokorra, haur bakoitzaren gaitasunak eta zailtasunak kontuan izanik. Prozesuan zehar aurkitu daitekeen zailtasunik orokorra informazioaren sarrera eta irteeran egon daiteke; hots, baliteke haur batzuek informazioa ondo ez jasotzea edo kontrakoa, informazioa ateratzen ez jakitea (López, 2012). Esaterako, irakurketa-idazketa prozesuan gerta liteke eta hortaz, arazoaren zergatiaren oinarria aztertu eta onartu behar da, gerora erantzukizun egoki bat emanaz. Azkenik, eskolak horretan jarri beharko lukeela begirada azpimarratzen du López neurobiologoak, geroz eta garrantzia gutxiago baitu gaur egun hezkuntzan.

Haurraren garapenaren harira, gizartearen balio, arau eta jarrerak bereganatzen hasten dira txikitatik (Hik Hasi, 2000). Bi ziklotan banatzen da Haur Hezkuntzako etapa, 0-3 urte bitartekoak lehenengoa eta 3-6 urte bitartekoak bigarrena. Lehenengo ziklo honetan (0-3), elikadura, garbitasuna, loa, jolasa, goizeko harrera zein irteera, ohiturak eta motrizitatea dira gehienbat lantzen diren alderdiak (Bigas, 2008). Horrez gain, Bigasek (2008) lehenengo ziklo honen lehenbiziko urteetan aldaketa ikaragarriak antzeman daitezkeela adierazten du, espazio eta pertsona desberdinak ezagutzen baitituzte eta egoera berri honek jarraibide zein erritmo zehaztu batzuetara mugatu. Ondorioz, egokitzapena prozesu oso garrantzitsua eta baloratua izan behar da, baita progresiboki programatua (Hik Hasi, 2000); uneoro haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Haur Hezkuntzako etapa guztian zehar jolasa da oinarria edozein alderdi lantzeko, jolasaren bitartez ingurua aztertu, pertsonak zein objektuak ezagutu, etab. egin dezake haurrak (Bigas, 2008). Hots, jolasarekin bat koordinazioa, hizkuntza, irudimena eta harremanak landu ditzake, besteak beste (Hik Hasi, 2000). Gainera, jolasak haurraren pentsamendua zehatzen du (Vygotsky, 1934 [2010]); Piageten hitzetan (1969) haurraren jolasa egozentrikoa eta berekoa da, ezaugarri egozentrikoa adinarekin pixkanaka desagertzen hasi arren. Haurrak izan ditzakeen pentsamenduen artean, hiru mota desberdin ditzakegu (Piaget, 1959); pentsamendu zuzendua edo soziala, kontzientea izanik helburu bat duena eta errealitatera moldatzen dena, batetik. Bestetik, pentsamendu ez-zuzendua edo indibiduala, ez da kontzientea eta ez da errealitatera moldatzen, imajinazioa erabiltzen du gehienbat; eta azkenik, pentsamendu egozentrikoa, aurreko bien artean aurkitzen dena.

Jatorrian haurren pentsamendua autista da, inguruko estimulaziorik gabe kontzeptuak erlazionatzen ditu (Piaget, 1969), baina gizarte presioaren ondorioz, pentsamendu errealista bihurtzen da. Piagetek dioenez (1969), pentsamendu autistak bakoitzaren behar eta interesak asetzea du helburu, nahiz eta errealitatea birmoldatu behar. Izan ere, haurrak bizitzan zehar izan dezakeen esperientziaren ondorioz, honen pentsamendua moldatu eta eraldatu egiten da; baita alderantziz ere (Piaget, 1927). Hau da, egoeraren arabera, haurrak duen antolamendu mentala era batekoa edo bestekoa da. Horregatik, haur batek aurretik duen ezagutza zein den jakitea oso garrantzitsua da, pentsamendu eta iritziak horren gainean eraikitzeko, buruko eskema birmoldatzeko, hain zuzen. Ondorioz, haur bakoitzaren kultura eta esperientzia oinarri izango dira prozesu honetan zehar (Hik Hasi, 2006).

Horren ildotik, gizarte-maila eta eskola arrakasta/porrota elkar loturik daudela azpimarratu beharra dago, familiaren ekonomia, kultura eta gizarte giroak eragina baitu haurren hezkuntza ibilbidean (Bigas, 2008). Horrez gain, azken urteetan gizartean eman diren aldaketekin batera, familia estruktura eta ideia aldatu egin dira; gurasoen lan banaketa, haur kopurua, errealitate desberdinak (harremanak, besteak beste), etab. Hortaz, Bigasen hitzetan (2008), hezkuntzak errealitate berri hauek onartu eta kontuan hartu beharko lituzke, haurrei heziketa egoki bat emateko helburuarekin.

Haurren garapenean dauden eragile alderdiak hainbat dira, lehenik eta behin, hezkuntza dugu, non gizartearen aldakortasunari eta aniztasunari begirada jartzeko ezinbestekoa den (Hik Hasi, 2009). Fishmanek (1993) azpimarratu bezala, hezkuntza gizartearen gaitzak sendatzeko duen berezko balioaren islada da, eskolari beharrezko garrantzia eskainiz, etorkizuneko gizartea eraberritzeko asmoz. Hau da, eskola eragile sozial, moral eta kognitibo zabalena denez, gizarte berriaren jarrera indartzen du, ikasle bakoitzaren beharrak asetuz eta ezinbesteko laguntza eskainiz.

Hezkuntzak bateratzen dituen ezinbesteko hiru ereduetan jarriko dugu begirada, haurren garapenean eragin zuzen bat duten hiru ereduak, alegia. Eskolak, familiak eta hezitzaileak duten jarrera haurren ibilbidean eragina izango du; hortaz, eredu nagusiak bihurtzen dira haurrentzat, hauek egiten eta esaten dutena barneratzen baitute. "Ume guztien gaitasunak landu behar dira haien jokabidea behartu edo oztopatu gabe, eta ikasiz gozatzeko aukerak eskainiz" (Medrano, 1994). Aipatutako hiru ereduak elkarlanean aritu behar dira uneoro, hiruren kohesioa ez galtzearren eta egindako aurrerapausoek zentzua izan dezaten. Izan ere, eskolak duen eredu nagusiari dagokionez, Haur Hezkuntzako geletan, talde txikietan lan egitea ohikoena izaten da, baita txokoak erabiltzea ere (Bigas,

2008), aukera desberdinak eskaintzen baitira eta ikasle guztientzat erosoagoa zein errazagoa izaten da funtzio desberdinak garatzeko (Hik Hasi, 2006). Honekin batera, etapa honetan gizartean bizitzen, gainerako kideekin harremanak izaten eta partekatzen ikasten da (Hik Hasi, 2000); ondorioz, aurretik azaldu eta Gassín-ek (2012) bere doktore-tesian azpimarratzen duen bezala, esperientziatik abiatzeko eta ikasteko aukera handiagoko etapa da Haur Hezkuntza. Betiere, haurren arteko desberdintasunak kontuan hartu eta hauei beharrezko esku-hartzea eskaini behar zaie, haur bakoitzak dituen behar eta interesak asetzeko asmoz (Bigas, 2008).

Umea jaiotzen denetik, heldua hezitzaile bilakatzen da; alegia, umearen mugimenduei zentzua emango dien bitartekoa (Bruner, 1984). Azken bi eredu garrantzitsuen arteko elkarlana, familia eta irakaslea, geroz eta estuagoa izan beharko litzateke, haurraren ongizatea bermatzeko eta bere garapenean egoki laguntzeko. Laguntza hori era desberdinetan uler dezakete bi aldeek, batetik, familiak pentsatu ohi du eskolarekin zerikusia duen edozein alderdi irakaslearen eskuetan dagoela; irakasleok, aldiz, haurraren heziketan parte hartzeko aukera eskaintzen die familiei, ezinbestekoa baita haurrarentzat eredu hori ez galtzea (Hik Hasi, 2006). Heziketa prozesu horretan laguntza, kontrola, komunikazioa, motibazioa eta babesa emango dio familiak haurrari (Hakuta, 1997), baina irakasleoi ez zaigu nahikoa iruditzen, hori baino gehiago baita haurraren garapena. Familiaren eta irakaslearen elkarlan horretan, haurraren oztopoak gainditzeko saiatzen dira, haurrak izan dituen lorpenak partekatu eta zalantzak argitu, bien artean estrategia/esku-hartze egoki bat bateratzeko asmoz (Hik Hasi, 2006).

Bi eredu nagusi hauen elkarlanean sakonduz, bien zeregina haurra entzutea, ikustea, estimulatzea, edozein zailtasunaren aurrean prest egotea, egiten dituzten agerraldiak jarriak eta hurbilak izatea, haurraren buruaren onarpenean laguntzea eta disziplina arauak (gutxi badira ere, argiak izanik) jartzean datza, besteak beste (Hik Hasi, 2000). Horretarako, familiaren eta irakaslearen artean komunikazioa bermatu behar da, elkarriketa informal zein bilera formalen bidez; Bigasen hitzetan oinarrituta (2008), bien arteko harremana egokia eta arina izan behar da, informazioa lortu eta partekatu behar da bi norabideetan, haurraren errealitatea zein den jakin (bai etxean, bai eskolan) eta prozesuan parte hartzeko prest egon. Fishmanek azpimarratzen zuen bezala, ikaslearen ezagutzak jakin behar dira bere trebetasunak indartzeko (1993); hala ere, oztopoak aurki ditzakegu prozesuan zehar, familiaren laguntza eskasa egon daiteke, eskolaz kanpoko ekintza gehienetan izena eman eta ondorioz, guraso ereduak galtzeko arriskua egon, etab. Orokorrean, haurraren ingurunea ezagutu behar da prozesuari beharrezko laguntza

eskaintzeko, haurren adina eta garapena jakin, baita ezinbesteko atxikimendua eman ere (Hik Hasi, 2000).

Nahiz eta bi eredu nagusi hauek elkarlanean aritu eta elkarrekiko kohesio bat izan behar duten, eredu bakoitzak berezko betebeharrak eta zereginak ditu haurren garapenean. Irakasleen zereginean begirada jarriz, etengabeko formazioa behar dute, ezagutza berriak barneratzeko eta prozesu berritzaileak aurrera eramateko (Hik Hasi, 2009); gainera, bakoitzak egindako lanaz ohartu behar dira, horren inguruan hausnartu eta autokritika egin, aldaketak eta lorpenak zeintzuk diren jakiteko asmoz. Eskolako eredu nagusia izanik, irakasleak estimulatu, laguntza eskaini, ardura bultzatu, estrategia desberdinak erabili (gela antolaketa, elkarrekintzak, laguntza motak, etab.), gidaria izan behar da uneoro eta haurren garapenerako aberatsa izango den metodologia erabili, hain zuzen (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012). Horrez gain, balorazio bat egin behar da laguntzaren inguruan, esku-hartzearen zein materialaren inguruan eta beste hainbat alderdiei dagokienez (Hik Hasi, 1997). Ebaluazioarekin jarraituz, Lidzek indartzen duen harira (2000-2005), ebaluazio psikologikoa egin beharko da baita ere, haurrek azaltzen dituzten zailtasunak antzeman eta beharrezko esku-hartzeak eskaini beharko dira. Hau da, ebaluazio eta balorazioek informazioa errazten dute, lehen esan bezala, haurren garapenean laguntza egokia bermatzeko asmoarekin.

Gelako espazioa oso garrantzitsua da irakaslearen paperarekin batera, espazio integratzaileak sortu behar dira bertan, ohiko dinamika hautsi eta ekintza berritzaileak aurrera eraman, metodo tradizionalak alde batera utziz (Del Río, 1993). Berrito ere Bigasen hitzak hartuz (2008), ekintza globalizatzaileak burutzeko aukera paregabea dute irakasleek, gaitasun desberdinen artean harreman estua baitago. Azpimarratzekoa da gela barruko materiala eskuragarri eta ordenatua egon behar dela, egoera honek haurra ardura izaten hasteko aukera ematen baitio (Bigas, 2008). Azkenik, Vygotsky-k (1934 [2010]) azaltzen duen bezala eta benetan helduok argi izan behar duguna, haurra ez dela heldu bat miniaturan; hau da, haurrak bere gaitasunak, zailtasunak, berezko interesak eta beharrak ditu eta ezin diogu hori baino gehiago eskatu, bakoitzak bere adina eta erritmoa baitu.

b. HIZKUNTZA

Haurrak hizkuntzarekin duen harreman estua eta horren garapena nolako den aztertu baino lehen, hizkuntza osotasunean hartzeko aukera paregabea da, hizkuntza zer den eta zertarako erabiltzen dugun hausnartzeko, alegia. Gizakia garen horretan, gainerako

espezietatik desberdintzen gaituen alderdia edo trebetasuna hizkuntzaren erabilera da (Ituero eta Casla, 2017). Loris Malaguzzik defendatu zuen bezala, hizkuntza komunikatzeko eta azaltzeko ezinbesteko erraminta da gizakien artean., “bizitzaren ibilgailua” beste hitzetan. Aurrerago hizkuntzaren garapenaren inguruan sakonduko dugun arren, kontuan hartu behar dugu uneoro hizkuntza ez dela soilik hitzen erabilera, baizik eta keinuak, zizkadura eta bokalizazioa bertan sartzen dira (Monfort eta Monfort, 2002). Hizkuntza komunikatzeko tresna garrantzitsua izateaz gain, besteekiko harremanetan aritzea laguntzen du (Hik Hasi, 2006), baita pertsona bakoitzaren nortasun sozial zein pertsonalaren osagai gisa izan (Fishman, 1993). Honekin batera, Del Río-k (1993) azpimarratu bezala, erabiltzen dugun hizkuntza interakzioak duen testuinguruaren, egoeraren eta pertsona bakoitzaren izaeraren arabera, bata edo bestea izango da.

Lehen aipatu bezala, hizkuntza ez da soilik komunikatzeko tresna bat, Bigasek (2008) azaldu bezala, pentsamendu-tresna gisa ere erabiltzen dugu, hau da, errealitatea ezagutzeko, planifikatzeko, ulertzeko eta ekintza desberdinak burutzeko, hain zuzen. Aurreko azalpenak orokortzeko asmoz, hizkuntza sozializaziorako tresna, pentsamenduaren motorea eta besteekiko harremana indartzeko gizakiok dugun trebetasuna da (Bigas, 2008). Hizkuntzaren erabilera hitzekin lotzen dugu gehien bat, baina keinuak, mugimenduak eta imitazioa garrantzitsuak dira baita ere komunikatzeko unean. Piagetek (1959) zioen bezala, aipatutako alderdi guztiak bateratzen dituen hizkuntzari haur-hizkuntza deritzo.

Hizkuntzaren garapena progresiboa da Ituerok eta Caslak (2017) azaltzen duten bezala, baina haur bakoitzak bere erritmoa duela kontuan hartu eta errespetatu behar da (Mariscal eta Gallo, 2014), adinak garapenean orientatuko gaituen arren. Nahiz eta behin eta berriz errepikatu, haurren ingurua eta egoerak eragin zuzena du hizkuntzaren garapenean (Bigas, 2008); faktore desberdinak eragiten dute prozesu horretan, faktore indibiduala (haurren izaera), ingurune faktorea (afektua eta arreta) eta familia faktorea (elkarreragina), hain zuzen. Dena den, hizkuntza edozein dela ere, garapen honetan haur guztiak fase berdinetatik igarotzen dira, hizkuntza ondo menderatu arte (Gleitman eta Newport, 1995; Serra eta beste, 2000; Guasti 2002). Hilabete gutxirekin, amaren ahotsa beste emakumeengandik bereizteko gai dira haurrak eta lehenbiziko komunikazioa emozioak dira, hitzik esan gabe, aurpegiaren adierazpena erabiltzen dute komunikatzeko (Ituero eta Casla, 2017), helduak interpretatzen jakin behar dituenak, alegia. Oro har, haurrak ahoarekin jolasten hasten dira, lehenengo soinuak produzituz; geroz eta bokalizazio gehiago eta desberdinak adieraziko dituzte (Mariscal eta Gallo, 2014), horretarako, gailu artikulatzailea garatzen lagundu behar diegu eta esperientzia desberdinak bermatu.

Ituerok eta Caslak (2017) azpimarratzen duten bezala, zizakadura lehenengo urtea baino lehen ateratzen da, baita soinu-kateak ere: “dadada”, “tatata”, “mamama”, etab. Hala ere, keinuak hitzak baino lehen azaltzen dira, komunikatzeko erraza baita (Mariscal eta Gallo, 2014; Golinkoff eta Hirsch-Pasek, 2001). Bi alderdiak indartu eta garatzeko, beharrezko elkarrekintza bultzatu behar da keinuen eta zizakaduraren artean (Mariscal, 2010), honek hizkuntzaren garapenean laguntzen baitu. Izan ere, 4-5 urte arte denbora utzi behar diogu haur bakoitzari, lehen esan bezala, bakoitzaren erritmoa errespetatu behar baita. Lehenengo urtebete horretan, haurra hitz egiteko gai ez den arren eta beste baliabide batzuk erabiltzen dituen arren, bere inguruan komunikazioa behar da (Bigas, 2008). Haurrek inguruan dituzten hizkuntzak identifikatzen hasten dira soilik 4 hilabeterekin (Bosch eta Sebastián-Gallés, 2001a, 2001b.); garapen fonologikoa baitute eta hizkuntzak identifikatzen laguntzen baitie. Hortaz, entzuten dituzten hotsak imitatu eta ekoizten dituzte, gehien bat guraso eta hezitzailearengandik hartutako hotsak izaten dira (Newport, 1990; Elman, 1993).

Urtebetea gainditu eta hurrengo urratsean kokatzen dira haurrak; orokorrean, animalia, janaria eta pertsona ezagunekin zerikusia duten hitzekin hasten dira, silaba batekoa edo bikoia izaten da, haur bakoitzaren arabera (Ituero eta Casla, 2017). Urte horretan, munduan dagoen orori izena jartzen saiatzen da haurra; hortaz, galderak etengabe egiten ditu, objektuak seinalatuz eta zer den galdetuz (K. Hirsch-Pasek eta R. Golinkoff, 2005). Beste hitzetan, “hauzerda?” etapa deritzogu honi. Barreña eta García-k (2009) adierazi bezala, 2. urte horretan, hitz bakarreko zein biko aroa igarotzen dute haurrek; batetik, “holofrase” etapa izan ohi dute, non edozein azalpen adierazteko, hitz bat soilik erabiltzen duten (Ituero eta Casla, 2017). Bestalde, bi hitzezko azalpenak ematen hasten dira, hizketa telegrafikoa deritzoguna, alegia (Hik Hasi, 2000). Horrez gain, bokal eta kontsonante gehiago sartzten dituzte haien adierazpenetan, intonazioa eta erritmoa aldatu, testuinguru desberdinak ugaritu, etab.; hots, konplexutasun maila areagotzen da adinarekin bat (Barreña eta García, 2009). Garapenarekin jarraituz, haurraren 3. urtean hitz kopurua bikoizten da, esaldi osoak bete eta, Ituerok eta Caslak (2017) azpimarratu bezala, esan nahi duena baino gehiago adierazten saiatzen da haurra. Gerora, elkarrizketarako baliabide handiak bereganatzen hasten da, besteekiko harremana arautu eta kontrolatu, hain zuzen (Ruiz, 2009a); azkenik, Haur Hezkuntzako etapa bukatu orduko, ahozko hizkuntza garatua bermatzen du haurrak (Gleitman eta Newport, 1995; Guasti, 2002).

Izan ere, Piageten ikerketek azaltzen duten antzera (1959), haurraren hizkuntza/elkarrizketa bere pentsamendu berekoian oinarritzen da, orokorrean bere buruaz hitz egiten baitu, inguruko enbri iritzia kontuan hartu gabe. Haur Hezkuntzako etaparen denbora gehiena berekoia izan ohi da, nahiz eta besteen konpainian egon, haurraren pentsamendua

soilik bere buruarengan mugatzen da (Piaget, 1959). Oro har, ekintzetan agertzen da berekortasuna, egoerak bere buruarekin soilik aztertu, ulertu eta konpontzen baitu, hain zuzen. Berekortasun etapa hau urteekin desagertzen dela azpimarratzen dute Piageten ikerketek (1959), laster ulertua sentitzeko nahia agertzen baitzaio haurrari, horregatik, galdera asko egiten ditu uneoro (C. eta W. Stern, 1928).

Haurraren garapen honetan ere, familiak, irakasleak zein eskolak garrantzia handia hartzen dute, hizkuntzaren prozesuan ibilbide egoki eta eroso bat emateko asmoz. Familiak kezka ugariak izan ohi dituzte lehenengo haurrekin eta betiko galderak egiten dituzte uneoro: “lehenengo hitzak noiz?”, “zergatik ume batzuk asko hitz egiten dute eta nireak ez?”, “akatsak egitea normala da?”, eta horrelako beste hainbat (Ituero eta Casla, 2017). Izan ere, kontuan hartu behar dugu haur bakoitzak berezko prozesua izango duela eta gainerakoekin alderatzea ez duela ezer onik erakartzen. Hortaz, familia inguruan hizkuntzarekin duen esperientziak, haurraren prozesuan eragina izango du (Joan Tough, 1987); ondorioz, afektua transmititu eta era naturalean komunikatzen laguntzea haurraren hizkuntza kontzientzia eta komunikazioan eragin egokia izango du (Byalistok, 2001). Oro har, garapenean egon daitekeen eragilerik nagusiena helduekiko harremana da, bai gurasoena zein irakaslearena, Pikabeak (2004) azpimarratu bezala. Ondorioz, jarrera aktiboa bermatu behar dute helduek, haurrek elkarrizketa bideratu eta helduek erantzun, nahiz eta zer esaten duten ez jakin, elkarrizketarekin jarraitzeko aukera eskaini behar zaie (Ituero eta Casla, 2017).

Elkarrizketa horietan begiradaren garrantzia eta objektuen oinarria euskarri bezala izan dezakete helduek; hau da, haurra begietara begiratu hitz egitean eta tarteka, objektuari begirada bideratu, hizkuntzaren kontzientzia hartzen has daitezen (Ituero eta Casla, 2017). Inkontzienteki ahozkoa zaintzen saiatzen dira helduak haurrekin hitz egiteko; hala nola, intonazioa aldatzen dute, errepikapen ugariak, etenaldiak, etab. Adierazpen honi “Maternés” deritzo, Ituerok eta Caslak (2017) azaldu bezala, amak duen ahozko goxoa mantentzen saiatzen dira, alegia. Horrez gain, txandak errespetatu behar dituzte, haurrari bere denbora eskaini eta elkarrekintza guztiak balioetsi; huts egiteko eskubidea izan behar du haurrak, hortaz, ez dira zuzenketak egin beharrik, frustratu daiteke eta komunikatzeko gogoia kendu (Mariscal, 2010). Azkenik, garapenean zehar adi egon behar dira helduak, zailtasun baten aurrean beharrezko esku-hartzea eskaintzeko prest egon (Ituero eta Casla, 2017).

Hezkuntzaren kasuan, irakaslea eta eskola, haurraren testuingurua oso kontuan hartu behar du (Hik Hasi, 2006); haurraren ingurua ulertu eta onartu, hori baita ikaste prozesuaren giltza. Anjel Lertxundiren hitzetan (1982), orokorrean, hizkuntza alderdia pasibo

bezala hartzen da eskolan, gainerako irakasgaiei garrantzia gehiago ematen baitzaie eta eskolarekiko konfiantza galtzen da (Fishman, 1993). Ondorioz, familiaren eta eskolaren arteko harremana estua izatea komeni da, ahal den informazio gehiena eskuratzeko eta ondoren, beharrezko esku-hartzea eskaintzeko (Bigas, 2008), hezkuntza haurren garapena bultzatzeko gakoa baita, Ruiz-ek adierazten duen antzera (2009a), alderdi afektibo, sozialak eta kognitiboak etengabeko erlazioan bermatuz. Gutxi bada ere, haurren arteko desberdintasunak eta desorekak eskolak konpentsatu behar ditu (Del Río, 1993), erantzukizun kontzientea eman, alegia. Kontuan hartu behar da betiere, Bigasek (2008) azpimarratzen duen bezala, haurrak eskolan eta etxean duen egoera ez dela berbera; batetik, etxean, bere espazioa zein nahi duten denbora baitute eta bestalde, eskolan, beste haurrekin partekatu behar dute espazio eta denbora hori (Wells, 1986).

Irakaslea haurren eredu argia den horretan, ikasle-irakaslearen arteko elkarreragina beharrezkoa da (Del Río, 1993); horretarako, irakasleak formazioa eskuratu, hausnartu eta material zein baliabide desberdinak eskaini behar dizkio haurrari, prozesuan aurrera egin dezan. Irakasleak haurren komunikazioa sustatu behar du uneoro (Bigas, 2008), hizkuntza funtzio desberdinetan garatzeko helburu bezala izanik; besteak beste, zerbait komunikatzeko, zerbait adierazgarria denean eta jolaserako. Gainera, irakasleak duen jarrera, eragin zuzena izan dezake haurren garapenean; horregatik, honek erabiltzen duen hizkera garrantzitsua da (Ruiz, 2009b). Laburbilduz, irakasleak esperientzia berriak eskaini behar ditu, haurrak egoera desberdinak bizi ditzan eta honekin batera, irakasleak haurren aurrerapenak zein zailtasunak jakingo ditu, gerora beharrezko laguntza eskaintzeko prest egon dadin (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012).

c. HIZKUNTZAREN LANKETA

Hizkuntza zertan datzan eta horren garapena aztertu ondoren, egunerokotasunean dugun hizkuntza lanketa zein den eta nolakoa den ikusiko dugu. Hala ere, ahozko hizkuntzan jarriko dugu begirada, ahozko hizkuntza eremua oso zabala izanik (Hik Hasi, 2009), Haur Hezkuntzako etapan ahozko komunikazioak garrantzia handiagoa hartzen baitu. Ahozkoaren helburu nagusia informazioa partekatzea, esanahia negoziatzea, parte hartzea, konplexutasuna eta jarioa bermatzea eta azkenik, zehaztasuna zein zuzentasuna izatean datza (Ruiz, 2009b). Izan ere, komunikazio trebetasuna hainbat faktoreren eraginpean dago, Del Ríok (1993) azpimarratu bezala, haurren jatorri kulturalak eta sozialak eragin zuzena du, familia estrukturak hartzen duen garrantziaren antzera (Bigas, 2008). Gutxi bada ere, haur bakoitzaren erritmoa, ezagutzak eta premiak kontuan hartu

behar dira uneoro, bakoitzari bere ibilbide egokia emateko asmoz (Ruiz, 2009b). Hortaz, haur bakoitzaren egoera kontuan hartzeaz gain, metodologia aktiboa bermatzea ezinbestekoa da (Del Río, 1993), hau da, ikasle guztiek hitz egiteko unea izan behar dute, parte hartzeko eta gainerako ikaskide zein irakaslearekin elkarrekin izateko momentua.

Honen ildotik, sozializazioak ezinbesteko tarte hartzen du haurraren garapenean, irakasle-ikasle arteko harremanak, berdinen artekoak eta komunikazioak ahozko hizkuntzan laguntzen du (Bigas, 2008), alegia. Hots, Haur Hezkuntzako etapan, harremanetako hizkuntzan oinarritzen da, nahiz eta hizkuntza akademikoan lehen urrtasak eman (Hik Hasi, 2006). Bigasek azaldu bezala (2008), 0-3 urte bitartean, ekintza guztiek hizkuntzaren garapenean laguntzen dute; pardela aldaketa unea pribilegiatua eta haurraren hitz egiteko unea egokia izanik. Bestalde, bigarren zikloan (3-6), hitz egiteko maila egokia lortzen dute, haur bakoitzak bere erritmoa duen arren (Bigas, 2008). Prozesu horretan zehar, haurraren alderdi afektiboa, sozialak eta kognitiboak etengabeko harremanean daude, hizkuntzarekin lotura estua baitute eta honen eragile zuzena eta ezinbestekoa hezkuntza izanik (Ruiz Bakandi, 2000).

Haurren esperientzietatik abiatuz, errealitate desberdinak ezagutzeaz gain, esaldi konplexuak, arauak errespetatu eta hiztegia zabaltzen hasten dira, besteak beste (Bigas, 2008). Honekin batera, barne egituraren aldaketak nabarmentzen ditu (Barreña eta Garcia, 2009). Aldamiatzea da estrategiarik egokiena ahozkoaren garapenean, hots, haurrak esandakoaren gainean irakasleak hedaketak egiten ditu (Ruiz, 2009a). Baina, bi aldamiaia desberdin aurki ditzakegu, Huartek eta Ozerinjauregik azaltzen duten antzera (2012), bien arteko harreman estua hautsi gabe; batetik, aldamiaia afektiboa, non haurrari segurtasuna eman eta komunikatzeko gogoia sorrarazten diogun eta aldamiaia kognitiboa, berriz, hausnarketa egiten laguntzen diogu.

Hortaz, haurrak ikasi behar duenaren zertarakoa aurkeztuko dugu, egoerak definitu, estrategia desberdinak eskaini eta autonomia bultzatuko dugu baliabide honekin (Hik Hasi, 1997). Horrez gain, konpetentzia komunikatiboa landuko dute, egoeraren arabera diskurtso mota desberdina erabiltzen hasiko dira, interakzioa eta planifikazioa erabiliz (Bigas, 2008); baita gramatika eta arau sozialak ikasi ere, eskerrak eman, baimena eskatu, mesedez eskatu, etab. Egoera desberdinak bilakatu behar dira prozesua aurrera eramateko (Del Río eta Bosh, 1088), testuinguruaz baliatuko gara uneoro, egoera naturalak izan daitezten (Ruiz, 2009b). Bigasek adierazi bezala (2008), hainbat hezkuntza egoera desberdin aurki ditzakegu; hala nola, errutinak (higienea, jan-orduak, etab.), non irakaslearen arreta guztia bereganatzen duten haurrek. Ondoren, ohiko hizkuntza formulak erabiltzen ditu irakasleak

(agurrak, ospakizunak, etab.) eta haurrak pentsarazteko zein ezagutzeko, jolasak erabiltzen ditu (Bassedas, 1998). Esplorazioa eta manipulazioa beste baliabide bat izan daiteke, esperimendua erabili ohi baitute hurrek ikasteko (Ruiz, 2009a); hipotesiak egin, saiatu, probatu eta konbinazioak egin, hain zuzen. Erramintarik orokorra ipuin kontaketa/irakurketa izaten da, alfabetizazioan arrakasta izugarria bermatzen baitu honek (Wells, 1998). Pentsatzen duguna ahoz adieraztea komeni da, pentsamenduak zein iritziak partekatzea eta galdetzea, besteak beste; esperientziak azaltzearekin egiten du bat honek, haurrak parte hartzea gonbidatzen ditugu. Azkenik, ahozko prestaketa dugu, irakasleak idatzi beharreko oharra guztion artean adostea datza, lehenengo ahoz adierazi gerora idatzi nahi dena, alegia. Hortaz, ohiturak eta prozedurak irakasten dizkiegu (Ruiz, 2009a).

Haurren erramintarik ohikoena garapen orokorrean imitazioa da, ahozko hizkuntzaren kasuan berdin, entzuten duen oro berradieratzen baitu (Ruiz, 2009a); ondorioz, entzutearen lanketa ahozkoarekin lortura estua duela esan dezakegu (Hik Hasi, 2009), ulermena gaien interes-mailarekin lotura duen bezala, Ruizek azpimarratzen duen antzera (2009b). Horrez gain, berriz ere Ruizen hitzetan (2009b), hainbat baliabide erabil ditzakegu hitzen forma, esanahia eta funtzioen arteko harremana nabarmentzeko; hitz jokoak eta zentzu biko esaldiak, besteak beste. Esku-hartzeak direla ere, erabilera anitzekoak eta aberatsak izan behar dira, egoera desberdinen sorkuntza eta garapena egon dadin (De Diego, 1998); irakaskuntza estilo aktiboak bateratzen ditu honek (Etxeberria, 2008), haurra protagonista izan eta irakaslea prozesuaren erantzukizun eta bidelaguna izango da.

Laburbilduz, helduekiko harremanak garrantzia izugarria du ahozko hizkuntza garatzeko orduan, errutinak arautzen baitituzte, haurrari hitz egiten baitiote eta hortaz, geroz eta parte-hartze eraginkorragoa izango du haurrak (Ruiz, 2009a). Haurrak seinalatu, izena eman eta identifikatu egiten du inguruan duen oro; hortaz, akatsen kasuan, birformulazioa erabiltzea da komenigarriena (Huarte eta Ozerinjauregi, 2012). Hezkuntzak zein gizarteak duten eragin zuzen horretan, hizkuntza guztiak balioetsi eta errespetatu behar dituzte (Ituero eta Casla, 2017).

Haurren edozein garapenean bezala, familiak eta irakasleak eragin izugarria dute prozesuan, hezkuntzak eta gizarteak duten antzera. Izan ere, alderdi guztiek antzeko funtzioak betetzen dituzte edo bete beharko lituzkete, bai familiak, bai irakasleak eta baita hezkuntzak ere. Hau da, hiru alderdien arteko elkarlana beharrezkoa da haurren garapenean aurrera egin nahi badugu, hortaz, hezkuntza eta familiaren arteko interakzio informalak hizkuntzaren eskurapena ahalbidetzen du (Rondal, 1990; Moerk, 1991). Hori dela eta, helduok hurrekiko dugun jarrera zaindu beharra dago, helduaren hizkerari esker,

haurrak alderdi objektiboa eta subjektiboa desberdintzen ikasten baitu (Vygotsky, 1934 [2010]).

Familia, irakaslea eta hezkuntza alderdiak bateratzen baditugu, prozesuaren erdigunea bezala, hirurak segurtasun afektiboa bermatu behar dute haurrarekiko (Ruiz, 2009b; Ituero eta Casla, 2017). Aditu gehienek adierazi bezala, Del Río (1993), Bigas (2008), Ruiz (2009b), Huarte eta Ozerginjauregi (2012), Ituero eta Casla (2017), besteak beste, entzuten jakin behar da, haurren erritmora eta mailara egokitu, elkarrizketak bermatu, galderak egin, giro erosoak sustatu eta baliabide desberdinak eskaini behar dizkiogu haurrari. Honekin batera, erantzun bat eman behar diogu haurrari, elkarrizketarekin jarraitzeko tarteak eskainiz eta motibatuz; bestalde, helduak zer eta nola egiten ari den ekintza hori azalduko dio haurrari (Pikler, 2000), honek behar duen konfiantza eta segurtasuna bermatuz.

Irakasleari dagokionez, familiaren zereginari hainbat estrategia gehiago gehitzen zaizkio, haur taldea baitu eta talde bezala ere baliabide desberdinak eskaini behar baitzaizkio. Ikasle guztien interes, behar, nahi eta ezagutzak kontuan hartu behar ditu edozein elkarrizketa bideratzeko (Del Río, 1993). Hortaz, behaketa eta hausnarketa egin behar du egoeraren arabera, gela antolatu eta taldekatze era desberdinak sustatu, hala nola (Hik Hasi, 2009). Honekin batera, zailtasunak antzeman behar ditu, gerora esku-hartze egoki bat emateko prest egon dadin (Hik Hasi, 1997); Del Río adierazten duen bezala (1993), egoerak analizatu eta ebaluatu, alegia. Laburbilduz, prozesuaren gidaria eta bidelaguna izango da uneoro irakaslea, haurra aintzat hartuko duena, egoera eta erraminta desberdinak eskainiko dizkie eta entzumen aktiboa egingo du prozesu guztian zehar (Del Río, 1993; Ruiz, 2009b; Bigas, 2008; Huarte eta Ozerginjauregi, 2012).

Eskolaren kasuan, aurreko azalpen guztia kontuan hartuz, praktika sozial onartuak eta aberatsak antolatu beharko lituzke (Hik Hasi, 2009); esaterako, bertsolaritza edo antzerki tailerrak eskaini, hizkuntza garatzeko testuinguru aberasgarriak eta bakarrak baitira (Del Río y Bosh, 1998). Orokorrean, eskola-porrota saihesten saiatzen da hezkuntza, baliabide desberdinak eskainiz eta desberdintasun komunikatiboak kontuan hartuz, egoera eta giro eroso zein egokiak sortuz, hain zuzen (Bigas, 2008).

Azkenik, alderdia dela ere, ebaluazioa egin behar da prozesuan zehar, aurrerapenen eta zailtasunen informazioa jasotzen baita honekin (Huarte eta Ozerginjauregi, 2012), gerora laguntza zehazteko eta planifikatzeko. Ebaluazioan jaso beharreko urratsak hurrengoak izan daitezke: nola ulertu den, norbera nola egokitu den, formulazio egokiak eta zuzenak egin

diren, estrategia egokiak erabili diren, etab. (Ruiz, 2009a). Horretarako, baliabide desberdinak erabili ohi dira informazioa gordetzeko, erregistro-koadernoak, taulak eta grabazioak, besteak beste (Ruiz, 2009b); orokorrean, behaketa egin ohi da prozesu guztietan eta ahozkoan are gehiago, alegia.

d. AMA HIZKUNTZA ETA BIGARREN HIZKUNTZA (H2)

Ama-hizkuntza desberdinak eta horien garrantzia zein distira aurki ditzakegu, geroz eta gehiago kultura desberdinez inguraturik baikaude. Zehatzagoak izan gaitezten, pertsona etorkinen kopurua handitzen joan da urteak pasa ahala (Gassín, 2012), 1973. urtetik aurrera sortu da gorakada, alegia. Kopuruak gora egin duen antzera, ehunekoak aldatu egin dira eta 2000. urtean %1'5 baldin bazen pertsona etorkinen ehunekoa, hamar urte beranduago %10-era igaro da Espainian. Nazionalitate desberdinetako pertsonak aurki ditzakegu gure inguruan, kultura desberdinetako pertsonak eta Gassínek azpimarratu bezala (2012), herrialde nabarmenak Ecuador, Bolivia, Argentina, Argelia, Marruecos eta Rumania dira; edozein kasutan, bizi berri baten bila datozen pertsona kopuru altua.

Hezkuntza munduan, ikasle etorkinen kopurua igo da baita ere, orokorrean derrigorrezko etapatan bere izena emanez. Hala ere, Haur Hezkuntzako etapa derrigorrezkoa ez izan arren, ikasle etorkinen ehunekoa igotzen ari da urtez urte (Gassín, 2012). Honekin batera, azpimarratzekoa da Salinas eta Santínek diotena (2009), ikasle etorkin horien igoera ez dela homogenea izan eta komunitate autonomoaren arabera, ehuneko bat edo beste lortu dutela. Gutxi bada ere, kontuan hartu behar dugu ikasle etorkinen egoera ez dela erraza, PISA ikerketak adierazi bezala (2009) eta Espainiako informean informazioa bateratu bezala (2010), jaiotako herrialdea ez den beste herrialde batean eskolak hartzeak zailtasunak ekarri ditzake hezkuntza prozesuan; emaitzen arabera, emaitza baxuenak ikasle etorkinenak izanik, baita hauen adina zein den ere kontuan harturik (Hik Hasi, 2006).

Honen harira, ama-hizkuntzen garrantzia nabarmena da beste edozein hizkuntza eskuratzeko edota ahozko komunikazioan aurrera egiteko. Ama-hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzen da eta ezin da beste edozein hizkuntza ama-hizkuntza bihurtu (Fishman, 1993). Hau da, ama-hizkuntza familia giroan barneratzen da (Hik Hasi, 2006), ikaste prozesuan eta arlo afektiboan eragina izanik; orokortuz, ama-hizkuntza oinarria da beste hizkuntza batzuk ikasteko, bigarren hizkuntza ikasten laguntzen baitu.

Jakin badakigu ereduaren araberakoa dela hizkuntza bati ematen diogun garrantzia (Amonarriz, 2015), kasu hauetan gurasoen pentsamendua islatzen dute gehienbat haurrek eta hizkuntza baten aurrean duten jarrera horren ondorioa izaten da. Hortaz, eskolak duen jarrera garrantzitsua bihurtzen da hizkuntza bakoitzari bere lekua eskaintzeko eta errespetuz jokatzeko (Fishman, 1993). Euskal Herriko kide garen moduan, euskara da gure gizarteak erabiltzen duen hizkuntza (edo erabiltzen zuen, galtzen ari baita); ondorioz, euskararen normalizazioa izan beharko litzateke helburu nagusia, Amonarrizek azpimarratu bezala (2015), horren aurrean dugun jarrera, erabilera eta ezagutzak normaltasunez eramanik.

Izan ere, Euskal Herriko ama-hizkuntzetan begirada jarriz, Eustaten datuak begiratu eta hainbat alderditan banatzen dira, ezaugarrien arabera datu bat edo beste jarriz, alegia. Hala ere, probintzia, adina, sexua edo dena delakoa dela ere, gaztelania gainera nagusitzen da 1.543.358 biztanlekin, euskara hitz egiten dutenak askoz gutxiago izanik, 400.438 biztanle (Eustat, 2018). Orokorrean, ezaugarriaren arabera datuak gora edo behera egin dezakete, baina Euska Herrian egon arren eta gehienentzat euskara ama-hizkuntza izan beharrean, gaztelaniaren indarrak irabazten du biztanleen artean.

Euskararen kasuan gehiago murgiltzearen, eskola hizkuntza da gehienentzat, eskola inguruarekin soilik identifikatzen baitute (Amonarriz, 2015). Egunerokotasuneko kontsumoetan gaztelania erabili ohi dugu gehienbat, euskara alde batera utziz; honen arrazoirik nagusia eta Suberbiolak argi adierazi bezala, euskararen erabilera jaitsi egin da inguruan dugun errealitate soziolinguistikoaren arauetara errenditu garelako. Izan ere, %60tik gorakoak diren euskaldun zonaldeetan erabilera mantendu da, lehen esan bezala, belaunaldiz belaunaldi transmititu den hizkuntza bakarra baita (Amonarriz, 2015).

Hizkuntza bata edo beste dela ere, komeni da etxe giroan ama-hizkuntza erabili eta mantentzea (Hik Hasi, 2006); orduan bai, eskola giroan bigarren edo hirugarren hizkuntza bat irakasteko erronka hasiko da (Hik Hasi, 2009). Honekin batera, kulturaztasunari erantzuna eman behar da geletan, hizkuntza eta ohitura desberdinak ezagutu, ondoan dugun pertsonaren kultura orokorrean jakin (Hik Hasi, 2006). Eskolak eskaintzen duen egoera ez da etxearen antzekoa, bertan egoera berrira egokitu behar dira ikasleak; hots, ez da elkarriketaren protagonista izango, baina esperimendatzeko aukera gehiago izango dute haurrek. Hala ere, ikasle guztiek bere tartea izan behar dute hitz egiteko eta behar izatekotan, bere ama-hizkuntza erabiltzeko aukera emango diogu (Hik Hasi, 2006), eroso sentiarazi dadin. Irakasleari dagokionez, gelan izan ditzakeen ama-hizkuntza bakoitzaren pare bat hitz ikastea ez dago beste lanik, ikasle guztiak baloratuak sentiarazi daitezten;

gainera, gelatan erabiltzen diren txarteltxoak ama-hizkuntza desberdinetan idatzirik egon daitezke (Hik Hasi, 2006).

Eskola giroan gehienbat erabiltzen diren hizkuntzak euskara, gaztelania eta ingelesa dira. Alde batetik, euskara Haur Hezkuntzako etaparekin batera hasten da eskolan, errutinen erabilerarekin, ekintza errepikakorrekin, abestiekin, etab.; orokorrean, erabilera komunikatiboei ematen diote lehentasuna (Hik Hasi, 1997). Gaztelaniaren kasuan, kaleko hizkuntza denez, erabilera formalari ematen zaio lehentasuna, ahozkoa zein idatzizkoa izanik, alegia. Azkenik, ingelesarekiko lehenengo harremana bermatzen da Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta soilik ahozko elkarrekintzari ematen zaio garrantzia (Hik Hasi, 1997).

Ikasle bakoitzarentzat bigarren hizkuntza bata edo beste izango den arren, kasu guztietan eroso sentiarazi behar dugu, estrategia desberdinak eskaini eta bultzatu (Caballero de Rodas, 2001). Horrez gain, haurrekin erabiliko dugun hiztegiaren tamaina egokitu eta zehaztu behar da ikaslearen gaitasun, behar eta interesetara (Barreña eta beste, 2006). Honekin batera, Pérez-Pereirak adierazi bezala (2008), ez dago beste lanik haurrak hizkuntza biak txikitatik entzutea, jabeakuntza-erritmoa dela ere. Laburbilduz, kulturantzatasuna bermatzea eta lantzea komeni da haur txikiengan, ondoko pertsonaren kultura eta hizkuntzaren lehen urratsak jakitea zein erabiltzea beste pertsona eroso sentiaraztea bermatzen du. Ondorioz, Haur Hezkuntzako etapa garrantzitsua dela behin eta berriz azpimarratu dugun bezala, haurren lehenengo pausoak ezinbestekoak dira gizartean elkarbizitzeko; familiaren, irakaslearen eta eskolaren elkarlana uneoro izanik, alegia.

4. HELBURUAK

Uneoro erabiltzen dugu komunikazioa, momentu guztietan, ondoko pertsonarekiko edo gure buruarekiko; horregatik, komunikazioaren garrantzia balioetsi beharko genuke, gure egunerokotasunerako ezinbestekoa baita. Hitzeko komunikazioa, komunikazio ez berbala edo dena delakoa ere, egoeraren arabera bata edo bestea erabiliz, momentu oro erabiltzen dugu hizkuntza. Hortaz, hizkuntzak dituen alderdi guztien jakinean egotea ez dago beste lanik, baita inguruan aurki ditzakegun hizkuntza desberdinak ezagutzea ere. Gure ondoko pertsonarekiko errespetua bermatuko dugu, kulturantzatasuna balioetsiko dugu eta gutxi bada ere, gure ezagutzen aukerak handituko dira.

Honekin batera, etorkizun oso gertuko irakasle bezala, ikasle bakoitzaren ulermen maila eta behar zein interesak kontuan harturik, haur bakoitzaren kultura ezagutzera murgiltzeko asmoa dut, ikasleek nirekin egin dezaten. Hau da, Euskal Herriko kulturaz eta hizkuntzaz gain, munduan zehar (eta are gehiago inguruan ditugun pertsonena) aurki ditzakegun kultura gehienek ezagutza minimo bat izatea izango liteke helburu orokorra; betiere, errespetua bermatuz kideen artean eta familiaren inplikazioa izanik. Horrez gain, kulturak ezagutzeaz gain eta komunikazioaren alderdia landuko dugun horretan, ez dago beste lanik kultura horien hizkuntzak ezagutu eta erabilera txikiak ematea. Hots, euskararen antzera, egunerokotasuneko agurrak, eskaerak, etab. hizkuntza desberdinetan nola esaten den jakitea. Hori bai, haurren mailara egokituko gara uneoro eta haur txikiak izan arren, hizkuntza desberdinen kontaktua izatea baliagarria izan daiteke etorkizunera begira.

Laburbilduz, hizkuntzaz baliatuko gara uneoro beste hainbat kultura ezagutzeko, inguruan ditugun hizkuntzez, alegia. Gela barruan kulturantzatasuna bermatzen denez, kultura desberdinak ezagutzeko aukera dugu; hortaz, ikasle bakoitzaren ama-hizkuntza kontuan hartuko dugu eta hizkuntza horiek baliatuz, hizkuntza bakoitzak eskaintzen dizkigun egunerokotasuneko hitzak aztertu eta erabiltzen hasiko gara. Hots, egunerokotasunean erabiltzen ditugun agurrak, hitz sinpleak, eskaerak, etab. izango dira lan honen erdigunea, gelako kide bakoitzaren ama-hizkuntza zein den jakingo dugu eta lehenengo aurrerapausoak egingo ditugu.

5. METODOA

Metodo aldetik, bi bide jarraitu ditut esku-hartzea azkeneko lan bezala aurkezteko; alde batetik, adituen proposamenak irakurri eta artikulu zientifikoetan oinarritu naiz esku-hartzea era batera edo bestera bideratzeko. Bestalde, inguruan ditudan familia, irakasle eta eskolarekin elkarrizketak eta elkarlana partekatu dut, informazio gehiago lortzearen eta denon parte hartzea susta dadin. Kasu honetan, ama-hizkuntzen garrantziaren inguruan UNESCOk (2016) argitaratu zuen artikulu batetik lortu dut informazioa, hari horretatik tira egin eta esku-hartzea prestatzen hasi naiz. Gutxi bada ere, eskolarekin harremanetan jarri naiz, bertan praktikak gauzatu baititut eta beharrezko informazioa helarazi didate testuinguruan koka gaitezen.

Esku-hartzearen proposamena sakon ezagutzeko, lehenik eta behin eskolaren metodologia ulertu behar dugu. Hots, eskolak erabiltzen duen metodologia zirkulazio librea da eta gela bakoitzak bere giroa du (artelekua, txokoa edo eraikuntza), izan ere, ambiente bakoitzean hainbat mikro-espazio daude, giro bakoitzarekin lotura estua dutenak, hain zuzen. Hala ere, Haur Hezkuntzan aurki dezakegun mikro-espazio garrantzitsuenetariko bat liburutegia da, gela guztietan errepikatzen den mikro-espazioa baita, non bertan aurrera eramaten diren ekintzak haurren ahozko komunikazioan zein idatzizkoan laguntzen duten (Rodríguez, 2014). Hortaz, aurrerago proposatuko dudako esku-hartzearekin batera, egunerokotasunean erabiltzen dituzten hitz edo esaldi sinpleen ezagutza eta erabilera bultzatuko dut.

Horretarako, gelako tutoreekin elkarrizketa sakona izan dut, beraiek duten iritzia jakiteko eta edozein laguntza lortzeko asmoz. Haur Hezkuntzako batzordearekin nire proposamena partekatzeko aukera izan dut baita ere eta irakasle guztien iritzia jakin ondoren jarri naiz ekinean, ekintza sinple bat izan arren, eskola, familia eta ikasleak bateratzen dituen jarduera baita. Gainera, kulturantzatasuna indartzen da, kultura desberdinen ezagutza eta guztiekiko errespetua bermatu, alegia.

Lana aurrera eramatearren, gelako familiekin hitz egin dut, gelan aurki ditzakegun ama-hizkuntzak zeintzuk diren bateratzeko asmoz. Momentu oro familiaren inplikazioa beharko da, ama-hizkuntza guztien jakinean ez bainago eta beharrezkoa izango baita beraien parte hartzea. Horrez gain, familiak esku-hartzearen partaide sentiaraztea ez dago beste lanik eta ezinbestekoa da haurren bidean aurrera egiteko, hain zuzen, irakaslearen eta familiaren arteko elkarlana bermatuz.

6. GARAPENA

a. TESTUINGURUA

Hizkuntzaren trataerari dagokionez, lehenik eta behin kontuan hartu behar dugu eskolaren ibilbidea, kokapena eta historia, alegia. CEIP Mariturri HLHI Gasteizen kokatuta dagoen eskola publikoa da, zehazki, Zabalzana auzoan. Ikastetxeak 2009an ireki zituen bere ateak, baina eraikuntzaren berrikuntzak zirela eta, ikasgela aurrefabrikatu batzuetan egon ziren 2 urtez; gero, Aldaialde eraikineran pasatu ziren eta bertan jarraitu zituzten klaseak ematen. Orain dela 5 urte gutxi gora-behera, gaur egungo eraikineran bueltatu ziren eta hemen jarraitzen dute. Hortaz, gaur egungo eskola berriztat hartuko genuke Mariturri. Eskola publiko honek bateratzen dituen ikasleen artean, kultura aniztasuna ikaragarri antzematen da; ikasle gehienak Gasteiztarrak izan arren, jatorri desberdinetako ikasleak aurki ditzakegu. Honen harira, 25 nazionalitate desberdin elkartzen dira eskolan, baina arabiarak, afrikarrak eta latinoak dira gehien nabarmentzen direnak.

Mariturri eskola publikoak eskaintzen duen hezkuntza-eredua “D eredia” da; hots, euskaraz eskaintzen dira ikasgaiak. Hala ere, kokapen linguistikoa euskara izan arren, erdaldun asko (hizkuntza askotarikoak, hain zuzen) daude eskolan, lehen azaldu bezala, kultura aniztasuna nabarmentzen baita. Orokorrean, “D eredia” errespetatu eta mantentzen da ikasle zein irakasleen artean; baina, kontuan hartu behar dugu zein etapatan edota mailatan ari garen, baita ikaslearen egoera jakin ere. Hau da, ez dute egoera berbera Gasteizen urte asko (edo betidanik) daraman Lehen Hezkuntzako ikasle batek eta Haur Hezkuntza etapara iritsi berri den ikasleak. Ondorioz, behin eta berriz errepikatzen da haurraren egoera jakin, kontuan hartu eta errespetatu behar dela, beharrezko laguntzak emateko prest egonik. Egoera desberdin guztiei aurre egiteko eta beharrezko laguntza horiek eskaintzeko, eskolak hainbat espezialista ditu lanean, haurrari, irakasleari zein familiei laguntza, babesa eta errespetua emateko prest dagoen profesionala, alegia.

Gela zehatz batean jarriko dugu begirada, konkretuki 2 urteko gela batean. Kontuan hartu behar dugu ikasle gehiengoentzat eskolako lehenengo urtea dela eta gainera, azkeneko bi urte hauetako egoera Covid-19a dela eta, egoera desberdinak aurkitu ditzakegu. Gela honetan dauden nazionalitateen artean, aurretik adierazi bezala, gehiengoak euskaldunak dira, baina afrikarrak eta marrokiak baita ere badaude. Hortaz, kulturaz aniztasuna nabarmena da 2 urteko gela honetan. Hizkuntzari dagokionez, gaztelania da ikasleek gehienbat hitz egiten dutena, nahiz eta familia euskaldun batetik etorri. Haur gehienek euskara ulertzen dute eta erabiltzen baita ere badakite, baina gaztelania erabiltzen dute uneoro, aurretik azaldu bezala, erosoagoa egiten baita komunikatzeko, gaur egungo

gizarteak hala adierazten baitu. Afrikarren kasuan, frantseza erabili ohi dute familia giroan eta irakaslearekiko, baita gaztelaniaz mintzatzen ere saiatzen dira komunikazioa bermatzeko. Bestalde, marrokiak arabea erabili ohi dute beraien artean, baina irakaslearekiko gaztelera erabiltzen dute eta haurren kasuan, euskara ikasteko eta erabiltzeko erraztasuna nabari da.

b. AMA-HIZKUNTZAK

Honen harira, ama-hizkuntza desberdinak aurki ditzakegu eskolan zehar. Aurretik aipatu ditudan 25 nazionalitateak kontuan hartuz, horiek izango lirateke gehien erabiltzen direnak: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta arabiarra. Izan ere, gehiengoak Gasteiztarrak dira eta gaztelania dute ama-hizkuntza bezala, beste gutxi batzuk euskara duten antzera. Desberdintasun ugaria aurki dezakegu Gasteiztarren artean, Euskal Herriko hiria izanik, familien artean gaztelaniak duen indarra handia baita. Aurretik esan bezala, Mariturri eskolan nazionalitate desberdin asko elkartzen dira eta azpimarratu beharra dago, familien zati handia hartzen dutela. Hots, ama-hizkuntza asko eta ugariak elkartzen dira gela barruan; lehen aipatu ditugunak (frantsesa, arabiarra eta ingelesa) gehiengoak izanik.

Nire praktiketako gelan zehazki, ikasle euskaldunak direnen artean, gaztelania eta euskara ama-hizkuntza bezala pare-parean daude. Hortaz, azpimarratu beharra dago gurasoen artean oreka bat dagoela bi hizkuntzen artean, ia familia euskaldun guztien artean batek euskaraz badaki, alegia. Bestalde, familia etorkinak ditugu eta orokorrean, arabiarra da ikasle horiek duten ama-hizkuntza; familia hauek marokoarrak dira gehienbat. Salbuespen bat aurkitzen da gela honetan, afrikar bakarra dago gelan eta bere ama-hizkuntza frantsesa da; ondorioz, zailtasunak aurki ditzakegu hizkuntza edo ulermena lantzeko. Gurasoengan begirada jarriz, arabiarra ama-hizkuntza duetenen artean, gaztelania ulertu eta gutxiengo erabilpena dute, baina guraso afrikarren kasuan, itzultzailea beharrezkoa izaten da kasu zehatzetan.

c. 1 / 2 / 3 HIZKUNTZAK (euskara, gaztelania eta orokorrean, ingelesa)

Eskolan gehienbat erabiltzen diren hizkuntzen artean, euskara, gaztelania eta orokorrean, ingelesa dira. Euskara egunerokotasunean erabili ohi dugu, hurrekin errutinak eginez, abestiak kantatuz, jolastuz, etab. Gaztelaniaren kasuan, familiarekiko komunikazioa

izaten da gehienbat, nahiz eta familia euskaldunak izan orokorrean, gazteleraz mintzatu ohi dute. Horrez gain, haurrekiko dugun komunikazioa euskaraz izateaz gain, ikaslearen ulermen mailaren arabera beste hizkuntza batean egiten da; hots, bere ama-hizkuntza erabiltzen saiatzen dira irakasleak, gaztelaniaren kasuan errazagoa izanik. Bestalde, ingelesa ematen da hirugarren hizkuntza bezala, ahozko elkarrekintza erabiltzen da gehienbat eta euskararen erabileraren antzera, errutinak, abestiak, jolasak, etab. erabiltzen dira ingelesa aurrera eramateko.

Hiru hizkuntzen denboralizazioaren aldetik ez da berbera izaten, gehienbat euskara edo gaztelania izaten da gela barruan erabiltzen den hizkuntza, egunerokotasuneko hizkuntzak baitira. Aldiz, ingelesak, bere ordu zehatzak ditu eskola orduetan, mailaren arabera ordu gehiago edo gutxiago izanik. Hala ere, aurreko bi hizkuntzetan begirada jartzen badugu (euskara eta gaztelania), gaztelania da bien artean nabarmentzen dena eta ikasleen artean onartua dagoena. Hots, euskara soilik irakaslearekin edo eskolako lankideekin hitz egiten dute, euskara hizkuntza eskolarekin bakarrik identifikatuz. Gaur egungo egoera dela uste dugun arren, betidanik izan da horrela, euskaraz hitz egitea eskolan bakarrik onartuta dago, gainerako kideekin komunikatzeko gaztelera erabili behar baita, edo hori da ikasleengan dagoen pentsamendua.

d. HIZKUNTZA PROIEKTUAK

Honen ildotik, hizkuntza bakoitza baloratua eta errespetatua izan dadin, Mariturri eskolak Hizkuntza Proiektua martxan du, non ikastetxean erabiltzen diren hizkuntzen eta horien irakaskuntzaren inguruan zein trataera emango den azaltzen den. Hots, ikastetxean parte hartzen duten guztien gogoeta eta erabakiak dira. Lehen esan bezala, euskara da eskola honetan erabiltzen den hizkuntza, eskola euskalduna baita. Izan ere, atzerritar asko daude eta irakasle zein familien arteko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izaten denez, hizkuntza hauek ez dakiten familiekin arazoak egon daitezke; hortaz, itzultzailea (espezialista) sartzeko da haien arteko elkarrizketetan. Bestalde, irakasleak euskaraz egingo du uneoro, beste arazoren bat antzematen ez bada, eta gainerako irakasle, hezitzaile, ikasketa-buru eta abarrekin euskaraz mintzatuko da.

Mariturri eskolak proposatzen dituen zenbait proiektu martxan jarri dira edota jarriko dira, hurrengo ikasturtera begira. Kurtsoan zehar, hilabetero programazio bat prestatu eta aurrera eramaten da hizkuntza garatu eta hobetze aldera, proposamen desberdinak azaltzen dira bertan; abestiak, errima-jolasak eta ipuinak, besteak beste. Eskolan

nabarmentzen den euskara maila eskasa dela azpimarratu beharra dago, nahiz eta eskolak eskaintzen duen hezkuntza-eredua “D” izan. Ondorioz, mahai gaineratzen diren proposamen asko euskara indartzeari begira egin da, haurra eta familiaren egoera bakoitza kontuan hartuz eta beharrezko estrategiak/baliabideak emanaz. Maila bakoitzak bere programazioa egiteaz gain, beste zenbait proiektu edo estrategia proposatu dira hizkuntza (eta gehienbat euskara) indartzeko asmoarekin. Izan ere, mailaka banatzen dira proposamen hauek, haurraren adina eta garapena kontuan hartuz.

Aurkeztu diren proiektuen artean *Motxila Ibiltaria*, *Pelutxearen Proiektua* eta *Bularretik Mintzora* izan dira, ekintza bakoitza Haur Hezkuntzako maila bakoitzean burutuko da, beharrezko aldaketak eginik eta haurraren adinera egokituz. Lehenengo proiektuari dagokionez, 2 urteko gelan bideratuko da, eskolaren eta familiaren arteko harremana sustatuz; hots, ostiralero ikasle batek motxila etxera eramango du eta barruan dakarren ipuina irakurriko du gurasoen laguntzaz, hurrengo astelehenean eskolara bueltatu eta gelan esperientzia kontatuko die gainerako kideei. Ondoren, 3 urteko gelan, *Pelutxearen Proiektua* aurrera eramango da; pelutxea gelako maskota izanik, ostiralero ikasle batek etxera eramango du eta astelehenean bueltan, gainerako kideei kontatuko die zer egin duen asteburuan zehar pelutxearen konpainian (nahi izatekotan argazkiak erakutsiko ditu). Azkenik, *Bularretik Mintzora* (Galtzagorri Elkarte, 2007), 4 eta 5 urteko haurrekin burutuko den ekintza izango da. Kasu honetan, familiak, haurrak, eskola eta liburutegiak bateratzen dituen proiektua da, irakurketa sustatzeko asmoz.

Ekintza gutxi badira ere, proiektuez gain, 4 eta 5 urteko geletan “bikoizketa” egiten da arratsalde batzuetan, euskara maila indartzeko helburuarekin. Egun hauetan taldea bitan banatzen da eta talde bakoitzak ekintza desberdinak egiten ditu; besteak beste, errimak, kantak eta jolasak, baina uneoro euskaraz aritu behar dira haurrak, hor dago gakoa. Ondorioz, ikasleek nahitaez euskaraz egin behar dute irakaslearekin eta gainerako kideekin, zerbait adierazteko, eskatzeko edota kontatzeko.

e. ZAILTASUNEN KUDEAKETA

Eskolako espezialistetan begirada jarriz, haurraren zailtasunaren arabera bata edo besteak parte hartuko du laguntza horretan, espezialista bakoitzak bere betebeharrak eta zereginak baititu. Haurraren arabera hizkuntzarekin zailtasun bat edo beste izan dezake, nahiz eta hezkuntza premia berezien sorta oso zabala izan, hizkuntzak bere lekua du bertan. Oro har, hizkuntzarekin lotura duten hainbat espezialista aurki ditzakegu Mariturri eskolan; hala nola, logopeda, hezitzailea, PT-a, etab. Profesional bakoitzak bere laguntza

eskainiko dio behar duen ikasleari, baita tutore zein familiari ere, behar izatekotan eta egoera bakoitzaren arabera.

Espezialista hauek bere bulegoa propioa dute, baina gela barruan sartzen dira baita ere, egoerak hala eskatzen badu. Gainera, familiarekiko harreman estua bilakatzen dute, egoera eramangarria izan dadin eta edozein laguntza edo zalantza izatekotan, beraien eskua eskaintzen dute. Gutxi bada ere, irakaslearen, familiaren eta espezialistaren arteko elkarlana eta inplikazioa beharrezkoa da egoera dela ere, haurraren bidea egoki eraikitzen joateko eta haurraren onerako. Ondorioz, hainbat bilera egiten dituzte informazioa helarazteko eta beste partetik jasotzeko, bai elkarrekin, bai bakarka familiarekin; hau da, uneoro kontaktua daude hiru eredu hauek, haurraren aurrerapausoak edota zailtasunak partekatzeke asmoz.

f. ESKU-HARTZEA

Aurretik azaldu bezala, hainbat proiektu eraman edo eramango dira aurrera hurrengo ikasturtean, baina antza denez, soilik euskara maila indartzeko egingo da, aurreko puntuetan azaldu dudan antzera, euskara galtzen hasia baita gazteen artean. Hala ere, eskolan aurki ditzakegun hizkuntza guztiak bateratzeko asmoz eta horiek familien zein ikasleen artean indartzeko asmoz, *Hiztegi bitxia* esku-hartzea proposatzen dut. Honekin batera, euskarak bere indarra hartzeaz gain, gainerako hizkuntzak balioetsi eta errespetatzen ditugu, eskolan bateratzen diren familia guztien kulturak kontuan hartzeko eta jakinean egoteko, taldearen parte sentiarazteko asmoz, alegia.

UNESCOk (2016) azpimarratzen duen bezala, haurrek izan behar duten hezkuntza eredia ama-hizkuntzarekin bat egin beharko luke, denon ulermena bermatzeko eta haur bakoitzaren gaitasunak oinarri sendoa izan dezaten asmoarekin. Hala ere, munduko biztanleriaren %40-ak ez du hezkuntza eredia ama-hizkuntza izateko aukerarik (Walter eta Benson, 2012). Honekin batera, ama-hizkuntza hezkuntza eredu bezala ez duten ikasleengan zailtasunak agertzeko erraztasuna egon liteke, batez ere irakurketa-idazketa prozesuan. Hau da, haurrek ulertzen duten hizkuntza batean irakatsi behar zaiela azpimarratzen du uneoro UNESCOk (2016), gaitasunen oinarri sendoak lortzen baitira, aurrerago beste ikaskuntza batzuk eskuratzeko asmoz.

Kontuan hartu behar dugu hizkuntzak pertsona bakoitzaren kultura islatzen duela, identitate etnikoa islatzen duen bezala. Izan ere, ez da ohikoa izaten hezkuntza-politikak eskoletan aurki dezakegun dibertsitate linguistikoa islatzea eta horiek errespetatzea,

orokorrean gehiago hizkuntzak hartzen baitu indarra hezkuntza eremuan, gutxiengo hizkuntzak kontuan hartu gabe (UNESCO, 2016). Horretarako, gutxiengo hizkuntza menderatzen duten irakasleak egon beharko lirateke, zailtasunak egon daitezkeelako gela barruan irakasleak ama-hizkuntza gehienak menderatzen ez baditu (Alidou eta Brock-Utne, 2011). Hots, irakasleak prest egon beharko lirateke gela barruan gutxienez bi hizkuntzetan irakasteko, baita haur bakoitzaren gaitasun eta zailtasunak kontuan hartzeko ere.

Horrez gain, material didaktiko inklusiboa beharrezkoa da gela barruan, ikasleek ezagutzen duten hizkuntza batean dagoen materiala erabili, alegia (UNESCO, 2016). Haur Hezkuntzako etapak garrantzia hartzen du Lehen Hezkuntzako etapa batera salto egiteko edota etorkizuneko erantzunak onak izan daitezzen. Hala ere, gizarte minoritario batean parte hartzen duen ikasle batek zailtasunak izan ditzake Haur Hezkuntzako etapan sartzeko; hortaz, ikasle horrek izango dituen erantzunak hobetzeko asmoz, testuinguru kulturala kontuan hartu behar da, horietara egokituz (UNESCO, 2016).

Laburbilduz, UNESCOk (2016) hainbat gomendio ematen ditu hezkuntza hobetzeko asmoz; lehenik, hurrek ulertzen duten hizkuntza batean irakastea beharrezkoa ikusten du, ikasle guztien ulermena eta gaitasunen oinarri sendoak bermatzeko. Bestalde, irakasleen formakuntza beste zenbait hizkuntzetan ezinbesteko ikusten du UNESCOk (2016), baita hauen kontratazioa dibertsifikatzea ere, gutxiengo hizkuntzaren jabekuntza izatea, hain zuzen. Gainera, material didaktiko inklusiboak garrantzia hartu beharko luke, testuinguru eta hizkuntza desberdinak bateratzen dituen, hezkuntzan parte hartzen duten kide guztien ulermena bermatzeko asmoz. Azkenik, testuinguru kultural desberdinetara egokitzen den programazioa zehaztu behar dira, Haur Hezkuntzako etapatik Lehen Hezkuntzara igarotzeko laguntzak eskainiz (UNESCO, 2016).

Hiztegi bitxia-rekin batera haurren lexikoa indartu eta zabalduko dugu; hau da, egunerokotasunean erabiltzen diren hitzak koaderno batean idatziko dira erreferentziazko argazkiekin. Argazkiarekin bat egiten duten hitzak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta beste hainbat ama-hizkuntzetan agertuko dira. Hiztegi hauek familiek, irakasleek eta hurrek izango dute eskura, denon arteko koherentzia jarraitzeko eta hitz berberak erabiltzeko, haurrak errazago ikas eta barnera ditzan. Bertan idazteko erabiliko diren ama-hizkuntzak gela bakoitzean aurki ditzakegunak izango dira, taldearen kide sentitzeko eta kultura desberdinak errespetatzeko asmoz. Horretarako familiaren inplikazioa ezinbestekoa da hiztegia osatzeko, baita ikasle talde osoaren parte hartzea ere.

UNESCOK (2016) argitaratutako artikuluekin bat egitearren, gela barruan dauden ama-hizkuntza desberdinak erabiliz osatuko da *Hiztegi bitxia*, ikasle bakoitzak bere ama-hizkuntzan ikas dezan egunerokotasunean erabiltzen diren hitz edota esaldi sinpleak, 2 urteko haur batek erabiliko lituzkenak, hain zuzen. Honekin batera, etxean entzun eta erabilerarekin bat, ikasleak bere ama-hizkuntzean hiztegia osatzen joango da, erabilpen hori geroz eta gehiago izanik. Hortaz, gelan egingo den ekintza izango da, baina behar izatekotan, egunerokotasunean erabiltzen diren hitzak errazago jakiteko, espazio zehatzetara hurbiltzeko aukera izango dugu; ondorioz, espazio desberdinetan erabiltzen diren hitz edo esaldiak bisualagoak izango dira haurrentzat. Hots, hitzak edo esaldiak espazio zehatz batekin lotuko ditugunez, horren laguntza izango dugu *Hiztegi bitxia* osatzeko.

Hiztegia ez da inoiz guztiz osatuko, hau da, hitz edo esaldi berri bat ikasten denean eta erabilera ematen diogunean, hiztegian sartuko dugu, betiere ama-hizkuntza guztiak errespetatuz. Hortaz, ez da egun bakarreko ekintza izango, prozesua luzea izango baita eta hiztegia berritzen joango baita. Zehazki, 2 aste beharko ditu lehenengo urratsa emateko, ikasleekin eta familiekin hitz egiteko, ama-hizkuntza guztiak bateratzeko eta egunerokotasuneko hitz edo esaldi esanguratsuak mahai gaineratzeko.

Hiztegiaren sorkuntzan gehiago sakontzearen, aurrera eramango den lehenengo urratsa irakasleak egingo du, gelan hainbat argazki aurkeztuko ditu (ura, ogitxoak, fruta, etab.) ikasleek izena jar dezaten. Orokorrean, gaztelaniaz edo euskaraz adieraziko dute, egunerokotasunean gela barruan erabiltzen den hizkuntza baita. Izan ere, hurrengo urratsa familiarekin elkarrizketa izatea izango da, gelan bateratzen diren ama-hizkuntzen kontzientzia izan dezagun. Elkarrizketa horrekin batera, ikasleei aurkeztu dizkiegun argazkiak erakutsiko ditugu, familien laguntzaz, ama-hizkuntza desberdinetan izena jartzeko. Kasu honetan, irakaslearen inplikazioa beste hizkuntzen ahoskera jakiteko ezinbestekoa izango da, ikasleei euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteaz gain, beste ama-hizkuntzetan egin beharko du hiztegia berriz aurkezten duenean. Ondorioz, irakasle eta familiaren artean lotura estua bermatuko da, uneoro haurraren garapenean beharrezko laguntza eskaintzeko eta aurrera egiteko.

Gerora, irakasleak lortu duen informazio guztiarekin batera, *Hiztegi bitxia* sortuko du koaderno baten antzera. Hainbat hiztegi egingo ditu, horietako bat gelan geratuko dena, alegia, egunean zehar ikasleek hiztegia hartu, erabili eta haien arteko jolasa izan daiteke. Beste hiztegiak familien artean banatuko dira, familia bakoitzak etxera eraman dezan eta haurrarekin erabil dezan. Horrela, eskolan lantzeaz gain, etxean erabiltzen den

ama-hizkuntza indartuko da eta ondorioz, beste hizkuntzetan trebatzen saiatuko da, gurasoen laguntzarekin batera.

Lehen adierazi bezala, hiztegia berritzen joango da urtean zehar; hortaz, prozesua errepikatuko da hitz edo esaldi berriak hiztegian sartzeko. Prozesuan egingo diren aurrerapausoak ikasleen erritmora egokituko da, haurrek behar duten denbora izango dute hiztegia barneratzeko eta erabiltzeko eta prest daudenean, aurrera egingo da hitz edo esaldi gehiago sartuz. Prozesua berbera izango da, familiaren inplikazioa izanik eta eskolan lantzeaz gain, etxean ere erabiltzeko asmoarekin.

Lehenik eta behin, kontuan hartuko behar dugu helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak Heziberri dekretuan oinarrituko direla, zehazki *nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren adierazpenaren* eremuan. Hortaz, esku-hartzearen helburuei dagokienez, ahozkoarekin eta hizkuntza desberdinen ezagutzarekin egiten dute bat. Hau da, ahozko hizkuntza arian erabiltzea da lehenengo helburua, hitz eta esaldi desberdinak barneratzen joango baitira haurrak. Bestalde, inguruko hizkuntzetan komunikatzeko jarrera irekia izango da hurengo helburua, hitz eta esaldi sinpleak izan arren, beste kultura batzuk deskubritzea eta errespetatzea ez dago beste lanik. Azkenik, egunerokotasuneko ekintzetan parte hartzeko komunikazio-xedea erabiltzea izango da, orokorrean, hiztegian agertuko diren hitz edo esaldiak egunerokotasunean erabiltzen direnak baitira; ondorioz, horien erabilera izango da azkeneko helburua.

Edukien kasuan, 2 urteko gela batean begirada jarri dugunez, lehenengo zikloko edukietan oinarrituko gara; ahozko komunikazioa erabiltzea helburu orokorra den horretan, bi eduki desberdinduko ditugu atal honetan. Batetik, ahozko hizkuntza ulertu eta adierazteko urratasak ematea izango da, *Hiztegi bitxia* erabiliz, lehenengo pausoak emango ditu haurrak. Bestalde, komunikazioa harremanen oinarritzko arauak bete beharko ditu, hau da, arretaz entzutea irakasleak eta gurasoek esaten dutena, begirada erabili, etab.

Azkenik, esku-hartzearen prozesua ebaluatuko da eta horretarako ebaluazio irizpide batzuk erabiliko dira, Heziberri dekretuan oinarrituta izango direnak, alegia. Alde batetik, *Hiztegi bitxia*-ren erabileraren laguntzaz, geroz eta adierazpen ageriagoak eta egokiagoak egiten dituzte haurrek. Bestalde, komunikatzeko ahozko hizkuntza erabiltzen du gehienbat, hiztegiaren laguntzaz barneratu dituen hitz eta esaldiak gutxienez. Azkenik, gelakideen ama-hizkuntza desberdinetan hitz egiten saiatu da edo gutxienez, hizkuntza desberdinak errespetatu ditu. Horretarako, esku-hartze honetan erabiliko den ebaluazio mota jarraia izango da, prozesua ebaluatuko da bere osotasunean, ibilbidean zehar egin diren

aurrerapausoak eta zailtasunak zeintzuk izan diren informazioa jasoko da. Hortaz, irakasleak erabiliko dituen ebaluazio-tresnak behaketa eta taula izango dira. Taulari dagokionez, hainbat alderdi jarriko dira eta haurrak ea betetzen duen edo ez adieraziko da, irakasleak egingo duen behaketarekin batera, oharren atalean adieraziko du lortu duen informazioa. Horrez gain, aurretik azaldu bezala, irakaslearen eta familien arteko harremana estua izango da, uneoroko elkarrizketa bermatuko da bien artean eta ondorioz, informazioa lortu dezakete bi aldeetatik.

PROPOSAMENAREN TAULA:

IZENA	GARAPENA	HELBURUAK	EDUKIAK	TALDEA	DENBORALIZAZIOA	ESPAZIOA	EBALUAZIOA
Hiztegi bitxia	<p>Irakasle, ikasle eta familientzat sortuko den hiztegia izango da.</p> <p>Bi urtekoek erabiltzen dituzten eguneroko hitzak bertan bateratuko dira. Izan ere, gela barruan aurki ditzakegun ama-hizkuntza guztiak bateratuko ditu. Horretarako, hitzaren argazkia agertuko da eta horren azpian, hizkuntza desberdinetan idatzirik, izena.</p> <p>Izan ere, geroz eta hitz gehiago barneratuko dute; hortaz, hiztegia berritzen joango da.</p>	<p>1. Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea</p> <p>2. Hizkuntza ofizialetan eta inguruneko hizkuntza askotarikoetan komunikatzeko jarrera irekia izatea, beste errealitate eta kultura batzuk deskubritu eta errespetatzea</p> <p>3. Hizkuntza komunikazio-xedez erabiltzen hastea, ikasgelako egoera normaletan parte hartzeko.</p>	<p>Lehen zikloa</p> <p>1. Ahozko hizkuntza ulertu eta adierazteko urratsak ematea.</p> <p>2. Komunikazio harremanen oinarrizko arauak erabiltzen hastea (begiradak, arretaz entzun, etab.).</p>	<p>Talde guztiaren parte hartzea bermatuko da, familiaren inplikazioa kontuan izanik.</p>	<p>Ez da egun bakarreko ekintza izango, hiztegiaren sorkuntzak denbora behar baitu. Honek bi aste beharko ditu ikasleekin eta familia bakoitzarekin hitz egiteko eta hitz esanguratsuak bateratzeko.</p> <p>Hala ere, hiztegia eginda dagoelarik, urtean zehar erabiliko den materiala izango da.</p>	<p>Gela barruan egingo den ekintza izango da, baina hiztegiaren agertuko diren hitzak zeintzuk diren jakiteko, egunerokotasunean erabiltzen diren espazioetara gerturatuko gara, errazagoa izan dadin.</p>	<p>1. Gero eta adierazpen agerikoagoak eta egokiagoak egiten ditu.</p> <p>2. Ahozko hizkuntza erabiltzen du egoera askotan eta solaskide ugariekin komunikatzeko.</p> <p>3. Atzerriko hizkuntzan egindako jardueretan parte hartzen du.</p>

EBALUAZIOAREN TAULA:

	BAI	EZ	OHARRAK
<i>Haur guztiak parte hartu dute edo saiatu dira</i>			
<i>Hiztegiari erabilera eman diote</i>			
<i>Hitz eta esaldiak erabiltzen hasi dira (ama-hizkuntza)</i>			
<i>Beste hizkuntzetan erabiltzen saiatu dira</i>			
<i>Arreta jarri dute beste ama-hizkuntzetan</i>			
<i>Haurren garapena egokia izan da / emaitza onak lortu dituzte ahozko komunikazioan</i>			
<i>Komunikazio arauak errespetatu dituzte</i>			
<i>Taldearen arteko errespetua egon da beste kulturekiko</i>			
<i>Beste kulturekiko grina / nahia sortu da</i>			
<i>Familiaren inplikazioa egon da uneoro</i>			
<i>Helburuak orokorrean lortu dira</i>			
<i>(Etab.)</i>			

7. ONDORIOAK

Lanak orokorrean hainbat ondorio bateratzen ditu, lehenik, Haur Hezkuntzako etapan jarri dugu begirada eta horren garrantzia aztertu ondoren, gehiago balioetsiko den etapa izango dela esango nuke. Oso kritikatu izan ohi da Haur Hezkuntzako etapa (baita Lehen Hezkuntza ere), orokorrean irakaslearen lanaren alderdia kritikatzeko da gehienbat. Izan ere, haurren garapena ulertu eta baloratu dugu lan honekin, haurrek izan dezaketen garapena aztertu baitugu, zailtasunak aipatzeaz gain. Bestalde, hizkuntza alderdiak haurren garapenean duen garrantziari buelta bat eman diogu, beste ikuspegi bat emanaz eta estrategia desberdinak eskainiz, etorkizunera begira aproposak eta erabilgarriak izan daitezkeenak.

Hizkuntzaren haritik jarraituz, ama-hizkuntza desberdinak ezagutu ditugu, kulturantzatasuna balioetsi dugu; gehienbat inguruan ditugun kulturak izan dira, alegia, gertutasuna bermatuz. Ondorioz, haurrak kulturantzatasun horretan heziz, errespetua lantzen da gainerako kideekiko, beste kultura eta hizkuntzak ezagutuz gero, pentsamendu eta iritzi irekiago bat sortu dezakete haurrek. Honekin batera, ikasle etorkinak babesa sentiarazten dute beraien ama-hizkuntza eskola giroan entzuten dutenean, familiarekiko harremana estua sortzen den antzera, hain zuzen.

Azkenik, proposamena praktikara eraman ez dudana arren, ondorio orokor batzuk atera daitezke proposatutako estrategia honetatik. Familia guztien inplikazioa behar da ekintza aurrera eramateko, denon arteko elkarlana (familia, irakaslea eta ikasleak) hiztegia sortzeko. Gela giroan aurki ditzakegun ama-hizkuntza guztiak bateratu dira familiaren laguntzaz, hizkuntza bakoitzaren aurrean gehien dakitenean laguntza beharrezkoa izan baita. Horretarako, irakasleak berezko esfortzua egingo du, euskara eta gaztelaniatik atera, bere ikasleen ama-hizkuntza desberdinak ikasteko eta erabilera minimo bat ematearren. Horrez gain, ama-hizkuntzatik abiatuz, gainerako hizkuntzaz errazago barneratzen ditugu; hortaz, hiztegiak bere fruituak emango ditu bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasten hasten direnean.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZAK

Lanean zehar hainbat oztopo aurki ditut, bai teoriaren aldetik, bai proposamenaren aldetik. Batetik, artikulu zientifikoaren artean zaila egin zait batzuetan informazioa aurkitzea eta are gehiago, euskaraz izatea, euskaraz dagoen informazioa edozein alderditan eskasa baita. Izan ere, tutorearen laguntza izan dut artikuluak bilatzeko eta interesgarrienak erabiltzeko, teoriaren puntu batzuen informazioa bateratzeko zaila izan baita, edozein hizkuntzatan bilatu arren. Batzuetan oso erabilgarria da interneta edozein alderdiren informazioa eskuratzeko, baina gehienetan denbora asko igaro behar da garrantzitsuzko informazioa zein den aukeratzeko, informazio edo dokumentu osoa ez baitago. Hala ere, laguntza eskaini didate prozesuan zehar eta eskertzekoa izan da prozesuaren atal batzuetan, argi dago.

Bestalde, proposamenaren atalean, muga gutxi izan ditut praktikara eramanez ez dudalako eta ondorioz, proposamena bakarrik garatu dut, emaitzarik jaso gabe. Hala ere, praktikara ez eramate horrek, hainbat buruhauste ekarri dizkit, proposamen baliagarria den ala ez zalantzak sortu baitzaizkit; praktikara eramango banu, familiaren inplikazioa benetan bermatu eta indartuko nuke? prest egongo lirateke jardueretan parte hartzeko? Zaila da erantzun finko bat ematea, baina pentsa daiteke baietz (edo ezetz, familiaren arabera). Izan ere, eskolan izan dudana tutorearen oniritzia izan dut uneoro, proposamen aberasgarria iruditu baitzaitzaion eta bere laguntza eskaini dit edozein oztopo gainditzeko.

Hezkuntza ibilbidean hizkuntza desberdinak irakasten dira, Euskal Herriaren kasuan, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiten da orokorrean, eskolak eskaintzen duen hezkuntza ereduaren arabera; hirugarren hizkuntza ingelesa izanik. Eskolako D ereduaren begirada jarritz, ikasleekiko harremana euskaraz izaten da eta familiarekikoa, aldiz, gaztelaniaz izan ohi da, denon arteko ulermena bermatu dadin. Baina, gaur egungo kulturantzatasuna dela eta baliteke familia batzuk beste hizkuntza bat erabiltzea eta ezer ez ulertzea, kasu horietan zailtasunak agertzen dira. Horretarako, beste baliabide batzuk jarri beharko lirateke eskolaren eta familiaren arteko harremana uneoro estua izan dadin eta eskola batzuk irtenbide bat edo beste eskaintzen duten arren, ez da eskola guztietan egiten (gutxienez publikoetan) eta beharrezkoa ikusten dut, nire ikuspuntutik hitz eginez.

Horrez gain, nire praktiken esperientzia dela eta, ikasturtean zehar hizkuntzarekin zerikusia duten ekintzak jarduten dituztenean, oro har, eskolan kulturantzatasuna dagoela ahazten da, euskarari arreta gehiena eskainiz. Edozein jarduerara aurrera eramaten denean,

euskarari ematen zaio garrantzia handiena eta honek ez du esan nahi gaizki dagoenik; baina, beste kulturak, hizkuntzak eta ohiturak aurki ditzakegula azpimarratu beharra dago, horiei bere espazioa, denbora eta hainbat ekintza eskaini baita ere. Gainerako pertsonetako errespetua bermatu nahi da uneoro eta errespetu hori alderdi guztietan aplikatu beharko litzateke, hurrekin egiten diren zenbait ekintzetan sartu eta parte hartze hori bermatu, edonor baztertuta ez sentiarazteko asmoz.

9. ERREFERENTZIAK

- Amonarriz, K. (2015). Ahozko soziolinguistikaren behatokitik. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, (3), 103-127.
- Arano, R. M^a. (1997). Txingudi ikastolako hizkuntza plangintza. *Hik Hasi*, (16), 32-34.
- Barreña, Andoni & Iñaki Garcia, 2009, "Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebkarrengan eta elebidunengan", *Euskera* 54, 2-1. zatia, 603-638.
- Bigas, Montserrat, 2008, "En lenguaje oral en la escuela infantil", in Bigas, M. & M. Correig, 2008, (arg.), *Didáctica de la lengua en la educación infantil*, Síntesis Educación, Madrid.
- Carles Gassín, R. (2012). *Potencial de aprendizaje y adaptación al contexto educativo. La prevención de problemas escolares en niños inmigrantes*. [Doktorego Tesia]. Granadako Unibertsitatea, Psikologiako Fakultatea, Espainia.
- Del Rio, María José, 1993, "Capítulo 2. Algunas cuestiones e ideas previas sobre la enseñanza de la lengua oral comunicativa", in *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo*, ICE-Horsori, Bartzelona.
- Etxague, K.; Mazkiaran, A. eta Martinez, I. (2000). 0-3 urte bitarteko haurren garapen psikologikoa. *Hik Hasi*, (48), 31-35.
- Fishman, J. A. (1993). Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, (10), 37-46.
- Fons, M. (2016). *Didáctica de la lengua y la literatura en Educación Infantil*. Síntesis.
- Heziberri (237/2015 dekretua), Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15ekoa.

- Huarte, Mainer & Jone Ozerinjauregi, 2012, "Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean", in *Hizkuntzaz jabetzen (0-6)*. XVI. Jardunaldiak, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo.
- Ituero, Beatriz & Marta Casla (2017). *¿Cómo empieza el lenguaje? Descubrir, explorar y favorecer la comunicación temprana*. GRAÓ.
- López, M. J. (2012). Garapenari dagokionez, haur hezkuntza askoz inportanteagoa da unibertsitatea baino. *Hik Hasi*, (167), 16-23.
- Pikabea, I. (2004). HHko eta LHko ikasgeletan ahozko euskara hobetzeko esku hartzeko programa. *Tantak*, (32), 57-59.
- Rodríguez García, R. M^a. (2014). *Aprender vocabulario en Educación Infantil*. [Gradu amaierako lan argitaratu gabea]. Jaeneko Unibertsitatea, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Espainia.
- Ruiz Bikandi, Uri, 2009a, "Hizkuntzaz jabetzea eta elebitasun goiztiarra", in *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*, UPV/EHU, Bilbo.
- Ruiz Bikandi, Uri, 2009b, "Ahozko hizkuntza irakastea", in *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*, UPV/EHU, Bilbo.
- Sainz, M.; Ozaeta, A. eta Garro, E. (2009). Ahozko hizkuntza lantzen. Haur Hezkuntzan hasi eta unibertsitateraino. *Hik Hasi*, (140), 6-13.
- Sesma, A.; Hernández, P. eta Ortega, I. (2006). Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan: Hizkuntzen trataera ikasle etorkinekin. *Hik Hasi*, (107), 24-29.
- UNESCO (2016). Si no entiendes, ¿cómo puedes aprender? *Documento de Política*, 24.
- Vygotsky, Lev, 1934 [2010], "La teoría de Piaget sobre el habla y el pensamiento del niño", in *Pensamiento y lenguaje*, Paidós, Bartzelona.

10. ERANSKINAK



URA

AGUA

EAU

ماء (ma')



OGITXOAK

PANECILLOS

ROULEAUX

لفات (lufat)



FRUTA

FRUTA

FRUIT

فاكهة (fakiha)



BATZARRA

ASAMBLEA

ASSEMBLÉE

حشد (hashd)



JOLASTOKIA

PATIO

TERRAIN DE JEUX

ملعب (maleab)



MOTORRA

MOTO

MOTO

دراجة نارية (daraajat naria)



KOLTXONETAK

COLCHONETAS

TAPIS

الحصير (alhasayr)



PIXOIHALA

PAÑAL

COUCHE

حفاضات (hifadat)



AMANTALA

BATA

BLOUSE

معطف (mietaf)



TXUPETEA

CHUPETE

TÉTINE

مصاصة (musasa)